

# ...eta kitto!

778 zkia. 2011-X-14

ASTEKARIA

TOKIKOM



## Esperientzia eskolara bueltan

### EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea  
943 20 42 99

**AUTOAREN ASEGURUA**  
*preziorik onenean*



Gaur egun denok nahi dugu irribarre osasuntsu eta politaren jabe izan, baina horrelako irribarre lortzeko ez dira nahikoa tratamendu estetikoak. Hortzeria itsusia konpontzeko protesi-finkoak edo zorroak ipintzea baino zerbait gehiago behar da. Aho barruan, hortzaren oinarria den eta aparteko garrantzia duen atal bat badago: hortzoia. Horrek estetika eta osasuna dakarkio ahoari. Murillo doktorea periodontzian aditua eta Espainiako Periodontzia Elkartearen kide aktiboa da; horrez gain, periodontziako hainbat masterretako irakaslea ere bada eta berak azaldu digu zeinen garrantzitsua den hortzoiaren osasuna nola dagoen urtean behin begiratzea.

**- Zergatik da horren garrantzitsua hortzoiak zaintzea?**

IRAZABAL HORTZ KLINIKAN hortzoia gerora egin beharreko edozein tratamendurako oinarritzat hartzen dugu, tratamendu horrek luzaroan irautea, eraginkorra eta estetikoa izatea nahi baldin badugu. Txantxarrak edo kariesak hortzei eragiten dien moduan, hortzoiak ere gaixotu egiten dira. Hondatzea 30 bat urteen inguruan hasten da eta, horren eraginez, horrenbeste kezka sortzen digun hezur-galera agertzen da. Denborak aurrera egin ahala, neurririk hartu ezean, hortzak jausten hasten dira. Hortzen erorketa horri deitzen diogu periodontitis edo piorrea. 30 urtetik gorako populazioaren %70etik gora arazo periodontalarekin bizi da eta, kasu gehienetan, ez daki.

**- Arazorik dagoen antzemateko modurik badugu?**

Arazoa hortzoiak odoletan has-tearekin batera agertzen da. Uste dugunaren kontra, hantura negatiboaren, gingibitisaren seinalea da hori. Horrek aurrera egiten badu, hezurra modu atzeraezinean galtzera ailegatu gaitzke (periodontitis). Jatorri bakterianoa duen gaixotasun honek osagai genetiko garrantzitsua du. Gaitz isil eta kronikoa da eta, beraz, begibistako ondorioak agertzerako oso berandu izaten da eta, gaixoak flemoia, hatsa, hortz luzeak edo hortz-mugimendua nabaritzen hasten denerako beranduegi izaten da. Periodontzian garrantzitsua garaiz egindako diagnostikoa da. Edo-



# IRAZABAL

clínica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.


Tel. 943 208552



**ANTONIO MURILLO DOKTOREA:**

**KLINIKA HONETAN BAKTERIOAK ETA DNA BITARTEZ JOERA GENETIKOA ANZEMATEKO GAI DIREN PUNTA-PUNTAKO MAKINA ELEKTRONIKOAK ERABILTZEN DIRA DIAGNOSTIKOA EGITEKO**

## “Diagnostiko goiztiarra da hortzak ez galtzeko giltza”



GERO

Benetako pazientearen irudiak



LEHEN

zein arazoren inguruko diagnostikoa sasoiz egiten baldin badugu, modu eraginkorrean tratamendua emateko gai izango gara.

**- Zuek, klinikan, nola egiten diezue aurre periodontziako gaitz?**

Irazabal Hartz Klinikaren periodontzian abangoardian gaude: periodontitisa eragiten duten bakterioak eta DNA bitartez joera genetikoak antzemateko gai

diren punta-puntako makina elektronikoak erabiltzen ditugu diagnostikoa egiteko. Irazabal Hartz Klinikaren gaixoa tratatzeko modurik egokiena hozkada orekatzean datzala uste dugu. Horrela, berriz ere modu seguru eta eraginkorrean mastekatea ahalbidetzeaz gain, epe luzera aho-osasun eta estetika eman-go diogu pazienteari. Horregatik, gaixoari ahalik eta mailarik txikienean eragingo dioten tratamendu periodontalak sa-ri-

### Zaindu beharrekoak

- Hortz-plaka edo lertzoa pilatzea.
- Hortz luzeak.
- Hortzoiak atzera egitea.
- Hortz-mugimendua.
- Odola botatzea.
- Hatsa.
- Zorne-poltsak.
- Lotutako GAIXOTASUNAK izatea: diabetesa, patologia koronarioa, tabakismoa...

tan protesi-finko edo zorroekin bateratzen ditugu, gure pazienteen premia estetiko zein funtzionalak asebetetzeko.

**- Sendatzeko modurik badago?**

Periontitisa, oraindik ere, gaitz sendaezina da, baina, hala ere, oso modu eraginkorrean sasoiz geratzeko gauza bagara. Baina, horretarako, lehenik eta behin tratamendua eta, ondoren epe labur, ertain eta luzera horri eustea beharrezkoa da. Periodontitisa oso lotura estua dauka diabetearekin, garaiz aurreko erditzearekin, patologia koronarioarekin, infartuekin... Osasunez nola gabiltzan jakiteko analitika egiteko ohitura daukagun moduan, urtean behin gure hortzoiak nola dauden begiratzera joan behar gara. Irazabal Hartz Klinikaren osasun periodontalaren inguruko azterketa egiteko beharrezkoa den teknologia osoa pazienteen zerbitzura ipintzen dugu.

**PERIODONTITIS KASUETAKO ASKO KIRURGIA BARIK TRATATU DITZAKEGU**



### ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

### HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea  
20600 Eibar

### TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

### FAXA:

943 20 28 72

### Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

### Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

### ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Maidier Aranberri

Ekhi Belar

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

### ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

### KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

### ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

### DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

### ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, E. Belar

eta S. Hernandez

### HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

### PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

### AZALEKO ARGAZKIA:

Ekhi Belar

### BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

### TIRADA:

8.000 ale

### INPRIMATEGLIA:

GERTU koop. (Oñati)

### COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

### LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*)k ez du bere gain hartzen al-  
dizkarian adierazitako esanen  
eta iritzien erantzunkizunik)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

**HOTZAK BALTZITUTA.**- Erabat hoztuta. Hotzaren hotzez belztuta. "Egun guztian mangutsik ibillita, Hotzak baltzittuta heldu zan etxera".

**HOTZARREN.**- Hotzak egon. "Ordu betian zaiñ, hotzarren hil biar giñan".

**HOZBERA.**- Hozpera, hozkila. Erderazko 'friolero'. "Hai zan hozbera, ohian be kaltzetiñekin sartzen zan".

**HOZBERO.**- Hotzikara, gaztelerazko 'destem ple'. "Bai jauna, hozberua txarra da".

## ESKUTITZAK

### ESKERRIK ASKOI

Inoiz irudikatu genuen agurrik polit, bero eta hunki-garriena izan zen joan den irailaren 30ean Txaltxa Zelaiko auditorioan Juan Luisi egin zitzaiona. Ekitaldian parte hartu zuten guztiei gure eskerrik beroenak luza-

tu nahi dizkiegu, bai taula gainean aritu zirenei bai bertaratu zen orori. Milesker omenaldirik borobilena izan zedin zuetako bakoitzak eman zuen apurratagatik.

Juan Luis Ulaziaren senitartekoak

### GAZTE LOKALEN ARTEKO LEHIAKETAREN ALDEIII

Eibarko gazte koadrila bat gara eta aurreko gazte lokalaren arteko lehiaketan parte hartu genuen. Bertan, primeran pasatzeaz gain, gure arteko harremanak sendotu genituen jolas eta barre algararen artean. Hori dela-eta, ideia ona irudituko litzaiguke aurten ere antzeko zerbait antolatzea. Gainera, elkarren artean euskeraz mintzatzeko une aproposa eta harre-

man berriak sortzeko aukera paregabea dela iruditzen zaigu. Horretaz aparte, aurreko urtean izan zuten arrakasta ikusita eta, koadrila asko horretan parte hartzeko gogoarekin geratu zirela ikusita, errepikatzea proposatzen dugu. Hori guztia esanda, zuten erantzunaren zain geratzen gara.

I.A. (Eibarko gazte koadrila baten izenean)

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Modak gero eta eragin txikiagoa du. Chanelek eta Saint Laurent-ek bazuten indarra joera edo tendentzia sortzeko, baina eurak izan ziren azkenak. Gaur egun kontsumitzaileak gehiago baloratzen du marka sormena baino; marketing-aren inperioa da nagusi. Gaur egun ez dago sortzailerik: Dior eta Balenciaga historia dira. Guacik eta Armanik agintzen dute, euren sormen-estudioak. Modaren etorkizuna Zaran dago, edo H&M-n"

(Pierre Bergé, Yves Saint Laurent-eko sortzaile-kidea)

"Eusko Jaurlaritzak ez du diru gehiago jarriko Espainiako Itzulira gurera ekartzeko. Asko kritikatu gaituzte, hemengo probei eman ez dieguna kanpokoak ekartzeko gastatu dugula esanez; hala ere, txirindularitzari emandako diru-laguntzak ia bi milioi eurokoak izan dira eta, horietatik, Espainiako Itzulira bakarrik %8 izan da. Gure benetako apostua Euskal Herriko Itzulira izan da, hori Euskaltel taldeak jasotzen duena ahaztu barik"


(Patxi Mutilloa, Jaurlaritzako Kirol Zuzendaria)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

## autuan

### HAUTESKUNDIETARAKO HAUTAGAIAK

Hurrengo hauteskundieri begira, alderdikak hasi dira Kongresu zein Senaturako kandidaturak presentatzen eta tartian hainbat eibartar egongo dira: PSE-EE alderdikaren Kongresorako listan Eneko Andueza ziñegotzi eta batzarkidia dago eta Senaturakuan José Luis Vallés ziñegotzi eta senadoria. EAJ alderdikak Senaturako osatu daben zerrendan, barriz, Iñaki Zuloaga 3. postuan doa.

### MERKATARIXENDAKO IKASTARUAK

Eibar Merkataritza Gune Irekiak eta Udalak, Merkataritza Federaziñuarekin alkarlanian, herriko dendarixeri hainbat ikastarotan parte hartzeko aukeria eskinduko detse. Hiru ikastaro izango dira ("Inteligentzia emozionala eta estresaren kudeaketia", "Sare sozialen abantaillak" eta "Salmentarako teknikak eta bezeruari arreta"). Hirurak duan izango dira eta dendarixeri egokitutako ordutegian. Izena emoteko 943207694 telefonora deittu leike (Leire Goenaga) edo [empleo@fmg.es](mailto:empleo@fmg.es) helbidera idatzi.

## Eibarko 36 odol-emotaileri omenaldixa

**DOMEKAN GIPUZKUAKO ODOL-EMOTAILIAK URTEROKO HITZORDUA EUKIKO DABE, 25, 40 ETA 50 ALDITTAN** odola emon daben laguneri omenaldixa egitteko. Azken urtiotako martxiari jarraituta, Elgetan batuko dira Debagoiena eta Debabarrenako odol-emotailiak, hango parrrokixan mezia ospatu eta, jarraixan, Espaloia kafe antzokixan aurtengo omendueri insigniak eta diplomak banatzeko. Horren ostian, danak alkarrekin bazkalduko dabe kafe antzokixan bertan.

Asteburuan omenduko dittuenen artian 36 eibartar dagoz. 25 donaziño egittigaittik omenduko dittuenak Pedro Agirreazaldegia Bereziartua, Joseba Arrillaga Baskaran, Belen Arza Azurmendi, Jose Luis Azpillaga Goenaga, Eduardo Baglietto Arrese, Eneida Garin Orbea, Josune Gaztelu Santos, Jose Maria Guerra Arrese, Ana Iriondo Olazabal, Sonsoles Jimenez Garcia, Rosana Lezea Artamendi, Juan Bautista Oizatzabal Atxotegi, Alberto Revuelta Gorrotxategi, Jose Manuel Rodriguez Barja, Juana Tardio Gordillo, Joaquín Ugarteburu Onaindia eta Gonzalo Vivar Miguel dira. 40-50 donaziño egittigaittik, barriz, M<sup>a</sup> Jesus Corrales Kortaberria, Blanqui Etxeberria Intxausti, Mercedes Epelde Ezenarro, Maxima Lopez Ruiz, Laura Lopez de Eguilaz Aranzamendi, Arrate



Martinez Etxeberria, M<sup>a</sup> Asuncion Rodriguez Alzola, M<sup>a</sup> Nieves Ruiz Diez, Jose A. Agirre Manzanedo, Aitor Amutxastegi Mugika, Ernesto Elizegi Lekunberri, Alexander Iriondo Txurruka, Agustin Larmariano Baglietto, Alejandro Maiora Gantxegi, Andoni Mujika Aulestiarte eta Manuel Mutilba Pérez omenduko dittue. Eta eurekin batera bi odol-emotaille bikaiñeri be errekonozimendua egingo detse: Mari Karmen Muruamendiarrak Zuazori eta Iñaki Arregi Irazustari. Honek danak, beste herrietako omenduekin batera, eguna jai giruan emoteko prest juango dira domekako zitara.

## Jazarpen sindikala salatu dabe

**ASTELEHEN EGUARDIXAN ELKARRETARATZIA EGIÑ EBEN APALATEGI KALEKO ZAER MOTOR ENPRESAREN PARIAN LAB** sindikatua ren deixari erantzunda, sindikatuko ordezkariaren berbetan "enpresako ugazaba Jose Mari Urigoitiak bere eskubidien alde egitten daben bihargiñak kalera botatzen dittuala" salatzeke.

Sindikatuordezkariak azaldu dabenez, "uda aurretik, enpresa honetan eguazaren arzuak ikusitta eta bertako bihargiñak iñolako ordezkariatza sindikalik ez zekela ikusitta, LAB-

en hauteskunde sindikalak egittia erabagi eta gure hautagaixa presentau genduan. Azken momentuan ELA-k be bere hautagaixa presentau eban eta boto bateko aldiagaittik botaziñua irabazi eban". LAB-ek salatzen dabenez, "lantoki honetan daguazaren gabezixak ez dira gitxi: metaleko hitzarmeneko 2010. eta 2011. urtietako soldata-igoeriak aplikau barik dagoz, egunian 9 ordu sartu bihar izaten dittue (egunian ordu bete enpresari oparitura, ez dabelako ordu hori disfrutatzen ezta kobratzen be), lan-


osasunian be gabezixak dagoz... eta kontra egitten dabena kale gorrira doa".

Kaleratu barri daben bihargiñaren kasua "jazarpen sindikala" dala argi ikusten dabe sindikatuan: "Bihargiñak urtiak emon dittu lantokixan eta oiñ arte ez da sekula bere inguruan kejarik jaso. Baiña LABek hautagai modura presentau eta jarraixan, Urigoitiak antolaketak arrazoiak argudiatuta kaleratu egin dau". Horren aurrarian, LAB-ek kaleratutako bihargiña atzera be onartzia eskatzen dabe.

## Gas instalaziñuen errebisiñuen inguruan

**KONSUMITZAILLIEN INFORMAZIÑORAKO UDAL BULEGOTIK OHARTARAZI DABENEZ**, Eibar inguruko udalerrixetan gas-instalaziñuen mantenimendurako inspeksiñuak egitten dihardue azken aldixan eta, hori dala eta, hainbat argibide emon nahi izan dittue: enpresa honek egitten daben inspeksiñua ez da legiak agintzen dabena; hau da, derrigorrezkua ez dan mantenimendua baiño ez dabe egitten.

Gipuzkuan lau urtian behiñ egin biharreko inspeksiñuak (derrigorrezkuak) egitteko arduria dakan enpresa bakarra Repsol Butano da, eta behiñ inspeksiñua eginda instalaziñua egoera onian daguala baieztatzen daben ziurtagirixa emongo detse bezeruari. Hortik kanpora egindako errebisiñuak ez dira derrigorrezkuak eta, beraz, jendiari hori argi euki deixan gogorarazi nahi detse, "dirua alperrik ez gastatzeko".



## Gure Balioak proiektua zabaltzen

**AURREKO BARIXAKUAN, GURE BALIOAK PROIEKTUA HERRITARREN ARTIAN EZAGUTZERA EMOTEKO** antolatutako programazi-  
onari jarraituta, hainbat jardue-  
ra hartu zittuan Untzagak. Egu-  
raldixa nahiko eskasa izanda  
be, antolatutako guztiak udale-  
txeko arkupietan pillatu zittuen  
eta, horri esker, ez eben ezer  
bertan behera laga bihar izan.  
Debabarrenian lau gizarte-bali-  
xo (integridadia, errespetua,  
ekintzailletasuna eta lankide-

tza-alkarlana) bultzatu eta sen-  
dotzia billatzen daben ekimena  
jendiaren artian ezagutzera  
emoteko, bestiak beste txapak  
egitteko tallarra, aittatutako ba-  
lixuekin lotutako marrazkixak  
egittekoa, graffiti-tallarra eta  
beste hainbat antolatu zittuen  
eta danetan parte-hartze haun-  
dixa egon zala azaldu dabe ar-  
duradunak. Horrekin batera,  
kanpaiñaren irudixa dan burbui-  
lla goguan, jaboiarekin ponpak  
egitteko potetxuak be oparitu  
zetsazen gerturatu ziran umieri.



Kanpaiñako lau balixuak ardatz izan zittuen taillarrak jende mordua batu eben. / SILBIA HERNANDEZ



Bezero eta lagun mordua batu ziran inauguraziñuan. / EKHI BELAR

## Nissan Motor barrixa inaugurata

**IRAILLA AMAIERAN INAUGURAU EBEN MODU OFIZIALIAN**  
Nissan etxeko saltoki ofizialaren egoitza barrixa Eibarren, Otaola Hi-  
ribidian. Berez badira hillebete batzuk konzesionarixua zabaldu eta  
bertan biharrian hasitta duguazela, baiña oiñ arte irekieraren inguru-  
ko ekitaldi berezirik ez eben egiñ. Ekitaldixan Nissan-eko bezero eta  
lagun mordua batu ziran eta danen artian Londres hotelian gaba pa-  
satzia eta Arzak jatetxian afarixa zozketatu zittuen. Sarixa ekitaldixa-  
ren erretratuak etaratzera jua zan gure lankide Ekhi Belarrendako  
izan zan, zozketan etara eben 17 zenbakixa beria zan eta.

## anzorik anzo



Atzo bertan hastekuak ziran paso-nibela kentzeko biharrak. / ARTXIBOKO IRUDIA

## Agur Txarakuako paso-nibelari

**Aurreikusittakua bete ezker eta azken orduan aldaketarik egon ezian, atzo bertan ekin zetsen Txarakuako paso-nibela kentziari.** Electrocicloseko etxien eta Barakaldo kaliaren tartian, trenbidian dagan paso-nibela kentzeko asmua aspalditik euki dabe Udal agintarixak, batez be Electrocicloseko etxietan jendia bizitzen hasi zanetik, euren zeñ inguruan ibilli bihar diran oiñezko zeñ gidarixen seguridadia bermatziarren, baiña oiñ arte zeñ izan dabe asmo hori gauzatu. Hain zuzen be, oiñ hurrengo, trenak eta paso-nibela ziharkatzen ziharduan automobilak istripua euki eben oin dala egun gitxi. Trenbidia zabaltzeko eta konpontzeko biharri eskar, baiña, paso-nibela desagertu eta aurrerantzian Barakaldo kalia Asua Errekatik pasauta bariantiarekin batuko daben biala erabiliko da, trenbidia ziharkatzeko premia barik.


## eibar kaleka

### Urki kalia

Kale honen izena Urkidi berbiaren laburdura da berez eta urki moetako arbola multzuarri erreferentzixa zuzena egitten detsa. Kaliaren izena sarritan bertan dagan kanposantuaren gaiñian jardutian erabiliko ohi dabe askok.

**Pegora kopurua: 26**

**Erroldatutakoak: 981**



asteko

%3'15

datua

da urtian Udalak aurrezten daben energixa-gastua, 2009ko udaz geroztik Udalak indarrian dakan aurreztapen planari esker. Kalian dagoazen 6.000 argi-puntuak gabeko 01.00etik goizaldeko 06.00ak bittartian amatauta, aurten gastua 100.000 eurotan gitxitzia lortu dabe.

## Zero Pobrezia sensibilizaziño kanpaiña

**HILLAREN 17XAN POBREZiarekin AMAITZEKO EGUNA GOGORATUKO DA** naziñoarteko maillan eta, horren harira, Eibarko Elkarkidetzarako Mahaixak hainbat jarduera antolatu dittu, urtero egin ohi dabenaren bidetik. Antolatutako ekitaldixa hurrengo egunian, urriaren 18xan, hartuko dau Portaleak, 19.00etan hasitta. Ekitaldixarekin hasteko, Eibarko Elkarkidetzarako Mahaixak gure herrixan garatzen diharduen proiektuen gaiñeko kalendarixua presentauko dau. Eta jarraixan, tokixan-tokiko garapenaren gaiñian jardungo dau berbetan Alfonso Dubois-ek, horren inguruan preparau daben hitzaldixan. Eibarren ez eze, EAEko beste herri askotan eta baita Espaiñiako toki askotan be ekitaldi diferentiekin gogoratuko dabe pobrezian kontrako eguna. Informaziño osua [www.pobrezacero.org](http://www.pobrezacero.org).

## Loiura juateko autobusa azaruaren 1etik aurrera

**PESA-K AZARUAREN 1-ETIK AUERRERA AUTOBUS-LINEA BARRIXA IPIÑIKO DAU MARTXAN.** Horren barri emoteko zabaldu daben idatzixak jasotzen dabenez, "Gipuzkuako Foru Aldundiko Mugikortasuneko Departamentuak bai mena emon detsa Transportes Pesa S.A.ri Arrasate-Bergara-Eibar-Loiuko aireportua ibilbidia egitteko, norantza bixetan eta ordu birik behingo maiztasunarekin".

Urteeratik helmugara bittarteko ibilbidieren iraupena 75 miñutukoa izango da eta linea Arrasatetik (Garibay) Bergarara (Ibargaray) juango da, han autobidian sartu eta Eibarrera (Ego Gaiñera) aillegau arte. Bertatik autobidetik segiduko dau, iñun geratu barik Loiuko aireportuko urteeren terminalera iño. Bueltan Loiuko aireportuko helmugen terminaletik abiatuko da autobusa eta geldialdi eta ibilbide berberak egingo dittu. Txartelak adostutako Debagoieneko eta Debabarreneneko bidaia-agentzietan erosteko aukeria egon-



go da urriaren 24tik aurrera eta, nahi izanez gero, autobusian bertan be erosi ahal izango dira. Aireportuan autobusian bertan salduko dittue.

Zerbitzua egunero eskinduko da, abenduaren 25ian eta urtarrillaren 1ian izan ezik. Informaziño gehixago nahi izanez gero, Bezeruaren Laguntza Telefonuan (902101210) edo [www.pesa.net](http://www.pesa.net) gunion lortu leike.

## Barrenetxe pastelerixiari omenaldixa Krabeliñen

**ROSA GISASOLA ETA HÉCTOR BARRENETXE EIBARTARRERI OMENALDIXA EGITTEKO**

aprobetxauko dabe Krabeliñekuak Maridaje Jardunaldixen barruan egingo dan San Andresetako afari berezixa. Matrimonixuak sortutako Barrenetxe pastelerixia "Eibarko postre-kulturako enbajadore" dala pentsatzen dabe Krabelin jatetxeko ugazabak eta hortik omenaldixa egitteko arrazoia. Urtero ehiza sasoi hastiarekin batera azaroko bari xakuetan Arrateko jatetxiak hartu ohi dittuan Maridaje Jardunaldixak zortzigarren ediziñua beteko dabe aurten eta honezkeroko erabat finkatuta dagoz askoren agendetan. Urteetik urtera barritasunen bat edo beste gehitzen detsez afari berezi horri eta aurten dastaketaren inguruko tallar bi eskinduko dittue, azaruaren 9xan eta 23an, 19.00etan, José Ramón Aguiriano, Alaiako eskola irakasliaren eta Idiazabalgo Jatorrizko Izenda-




penaren kontseillu erreguladoreko ki diaren eskutik. Lehenengo afarixa urriaren 28xan izango da, 21.30xetan eta egun horretan parte hartuko daben arandegixa Marqués de Vargas izango da. Azaruaren 4rako Bodegas Torres-ekuak gonbidatu dittue eta azaruaren 11rako, barriz, Viñas del Vero. Azaruaren 18xan Pago de Valencines-ekuak hartuko dabe parte. Betiko moduan, afariren batera juate-

ko interesa dakanak lehenbailehen izena emotia komeni da, ostera tokirik ez topatzia pasau leikelako. Erreserbak zuzenian egitteko azken eguna etzi (domekia) izango da, 11.00ak bittartian. Hortik aurrera 943202727 telefono zenbakira deittuta hartuko dittue. Bestalde, afarixetara doiazendako autobusa ipiñiko dabe antolatzailliak, jendiak ardaia lasai edateko aukeria euki deixan (urteeria Ego Gaiñetik 21.00etan eta bueltia 01.30xetan).

## Gernikako Manifestuaren alde

**HILLAREN 22-XAN GERNIKAKO MANIFESTUAREN ALDEKO MANIFESTAZIÑO NAZIONALA EGINGO DA BILBON**, 17.30xetan hasitta, "Herritarrok ere konponbidea nahi dugu" esaldixari jarraituta.



Juan nahi dabenendako autobusa antolatu dabe (Ego Gaiñetik 16.00etan urtengo da) eta izena emoteko Karrika tabernara edo Bilduren lokalera jua biharko dabe interesa dakenak. Bestalde, martitzenian herritarren aurrian hitzarmenaren inguruko presentaziño irekixa egingo dabe Untzagan, jubilaun aldameneko eskillaretan, 19.00etan. Jendiari bertara agertzeko deialdi zabala egin nahi detse.


Krisiaren eragiñak hainbat arlo harrapatzen ditu eta tabernarixak be horri heldu detse ordutegixa luzatzia eskatzeko. Jaurlaritzak kasu egin detse eta, batazbeste, ordubete beranduago itxiko dittue hamendik aurrera tabernak (02.00xetan), pub-ak (04.00etan) eta diskotekak (06.00etan). Guztiok ados?

## Zelan ikusten dozu tabernen ordutegixa luzatzia?



**SONIA MARIA FAUSTINA**  
45 urte  
etxeke bihargiña

Ondo ikusten dot neurri hori hartzia, holan dantza gehixago egin neinke tabernan (barreak). Halanda be, oin dagan ordutegixa ondo ikusten dot, gaiñera tabernak ixten dittuenian diskotekak zabalik jarraitzen dabe. Bestetik, begittantzen jata igarriko dala konsumuan ordutegixa luzatzia.




**LEIRE SUÁREZ**  
21 urte  
ikaslia

Neri begittantzen jata ordutegixa luzatzen bada be, jendiak berdiña kontsumiduko dabela. Ez dot pentsatzen ordubete gehixagoz tabernia zabalik eukitziagaittik kotsumiziñua askoz be haundixagua izango danik.

**JAVI RODRÍGUEZ**  
39 urte  
espezialista

Ondo; holan, urtetzen naizenian denbora gehixago egon neike kalian. Bestalde, ez dot uste tabernen itxieria luzatziagaittik jendiak gehixago konsumiduko dabenik, ordurako eranda daguazelako (barreak). Kafetegixetan bai, hor kafe gehixago saltzeko aukeria emoten dau.



**ENRIQUE ARISTONDO**  
55 urte  
bihargiña

Ondo ikusten dot, baiña ez krisi sasoian; krisi barik be luzatuko neuke. Neregaittik taberna bakoxta libre izan biharko zan beran ordutegixa zein dan ipintzeko. Halanda be, ordutegixa luzatzian neurrixagaittik begittantzen jata jendiak gehixago konsumiduko dabela.



### BATZOKI jatetxea

**EGUNEKO MENUA:**  
14'5 euro (BEZ barne)


Ego Gain, 1 - behea

**ASTEBURUKO MENUA:**  
20 euro (BEZ barne)

**MENU DEGUSTAZIOA:**  
35 euro (BEZ barne)

**TALDEENDAKO MENUAK**

**RAZIOAK  
BARRAN**



Tfnoa. 943 25 72 80  
www.baibatzokia.com

*Entsaladak*

*Legatza frijitua ..... 9 euro*

*Urdaiazpiko iberikoa . 8 euro*


*Sepia plantxan ..... 6 euro*

*Olagarroa ..... 6 euro*

*Filetea ..... 9 euro*



**Mª ANGELES  
ELIZBURU  
LARREATEGI**  
2. Urteurrena  
(2009-X-17)



**“Beti izango zara gure bihotzetan”**

**ETXEKOAK**

## “Euskara Familian / Familia Euskaran” kanpaina aurkeztu dute

**A**urreko astean aurkeztu zuten “Euskara Familian / Familia Euskaran” kanpaina. “Hizkuntzaren transmisioaren garrantziaz sentsibilizatzeko eta gaiaren inguruan ahalik eta informazio gehien emateko abiarazitako kanpaina Eibarko Udalak euskalgintzan beharrean diharduten beste hainbat gizarte eragilerekin batera sortu dute. Eragile-zerrendan, besteak beste, herriko ikastetxeak, euskaltegi biak, ... eta kitto! Euskara Elkarteak, Berritzegunea, Astixa eta Multirolak egitasmoa ordezkaririk daude”. Aurkezpenean azaldu zuten, “kanpainaren bitartez euskeraren erabilera eta transmisioa bultzatzeko orduan familia zein garrantzitsua den” azpimarratu nahi dute.

Kanpainaren barruan hainbat jarduerak jarraituko dira. Besteak beste, “gurasoak hizkuntzaren erabileran duten eredu paperaz jabetzeko” irratitarteak eskaintzen hasiak dira Euskadi Irratian zein Radio Euskadin. Horrekin batera, “Multirolak eta Afariketaren programetan parte hartzen diharduten umeen gurasoei gutuna bidali zaie seme-alabek euskara kirolean eta aisialdian praktikatzeko duten aukeraz jabetzeko”.

Eta azken urteotako martxari jarraituta, gurasoak euskara ikastera animatzeko zein aisialdiko begiraleentzat kanpaina bana garatu dira. Kanpaina osatzeko “Ume Eleanitzen Gurasoentzako eskuliburua”, 0-6 urte bitarteko gurasoei eleaniztasuna nola kudeatu jakinarazteko liburuxka banatu zaie, abenduan ospatuko den Euskararen Egunean gurasoentzako azoka antolatuko da eta Berritzeguneak ikastetxeetako sentsibilizazio saioak eskainiko ditu. “Ume Eleanitzen Gurasoentzako eskuliburua” izenburuko tailerra ere prestatu dute, euskaltegietak gurasoentzako.

Ekitaldia aurreko urteko euskararen erabileraren inguruko hainbat datu ezagutzera emateko aprobetxatu zuten.



Umien aisialdian euskeraren erabilera bultzatzeko ekimenak hartzen dituzten kanpainak, besteak beste. / MAIALEN BELAUSTEGI

Transmisioarekin lotutakoak neurtzeko, herriko ikastetxe guztietan matrikulatuta dauden urte biko umeen gurasoei galdeketa egin zaie (225 fitxa, 445 gurasoren perfilari buruzko datuekin). Datuen arabera, ikastetxe batean izan ezik, beste guztietan bikote euskaldunak ez dira %30era ailegatzen eta, beraz, gehiengoak etxean gaztelania jasotzen du.

### Aisialdian

Eskolatik kanpora, aisialdian euskararen erabilera neurtzeko, berriz, aurten Oporrak Afariketaren parte hartu dutenei begiratu diete (300 bat lagun). Euskaraz ondo ulertzen eta berba egiten dutenak %58a dira eta ulertu arren berba egiteko orduan zailtasunak dituztenak %40 dira. Programaren lehen egunean eta amaieran begiraleekin berba egiteko erabilitako hizkuntzari ere erreparatu diote, eboluzioa aztertzeko: hasieratik begiraleei beti euskaraz zuzendutakoak %62 izan ziren, %24k gogorarazi ondoren zuzendu zitzaizkien euskaraz eta gehienetan begiraleekin gaztelera erabiltzen zutenek %14a osatzen zuten. Azken egunetako joerari begiratu, lehenengo multzo bietan euskararen

erabilerak zerbait gora egin zuela ikusi dute (%67-ra eta %25-era, hurrenez hurren).

### Kale Neurketako datuak

Eta 2010eko Kale Neurketan, ohikoari jarraituta, erabilera datuak generazioka, zonaldaka, funtzioa eta gazte giroan jaso dituzte. Orohar, Eibarren euskeraren erabilera %23'6koa da. Adinari begira, haurrek erabiltzen dute gehien (%42'7); gazteen arteko erabilera %29'6koa da, helduen artean %20'7koa eta zaharrena %16koa.

Herriko auzoei begira ipiniz gero, herri ardatzak jarraitzen du euskararen erabilera gehien batzen (%34'6); Amañan erabilera %16koa da, Ipuruan %27'2koa, Urkin %13'3koa eta Urkizun %11'7koa.

Bestalde, jolasleku inguruetan entzuten da euskara gehien (%31'7); txikiteoan ere presentzia handia dauka (%29'4) eta familia giroan %20'8koa da erabilera. Ostera, erosketak egitera goazenean, euskararen erabilera maila oso txikia da, %8'4koa. Amaitzeko, baxakuetan gazteek zein hizkuntza erabiltzen duten neurtzean, gehienek (%73'7) gaztelera darabiltela erakusten dute datuek. Euskaraz berba egiten duten gazteak %26'6 dira.



## JON JOSEBA ALDAZABAL MUGURUZA

1932-X-11 / 2011-IX-19

FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





**Portaleak 'Buah txabal!' antzezlanara jasoko du urriaren 19an 19.30etan 'eta kitto! Euskara Elkartearen' Ilunabarrian ekimenaren barruan. Unai Iturriaga bertsolariak idatzitako, eta Jon Zubiaga 'Osoron' musikagile eta aktoreak antzeztutako lana da 'Buah txabal!'. Gazteak eta euskara, euren arteko harreman eta gorabeherak Portalean.**



**JON ZUBIAGA**, aktorea:

**UNAI ITURRIAGA**, gidoigilea:

**“Nor da gaztea eta nor ez?”**

**- Nolakoa izan zen antzelanaren gidoia idaztearen prozesua? Gaztetasunera buelta egin zenuen inspirazio bila?**

Egia esanda gidoia idaztea ez zitzaidan erraz-erraza suertatu. Ez hainbeste gaztetasuna urrun geratzen zaidalako, gaiagatik beragatik baizik: gazteak eta euskara moralina barik zelan tratatu.

**- 'Beti'-k telefono mugikorra galtzen du eta tragedia da bereztat. Zergatik?**

Irudipena daukat gaur egun mugikorrak garai batean (eta beharbada baita gaur egun ere) autoak betetzen zuen funtzioa betetzen duela: asko esaten du norberari buruz. Bestalde mugikor bat telefono bat baino askoz gehiago da: agenda, musika-ontzia, argazki-albuma... Horregatik da tragedia bat “Beti”-rentzat.

**- Nola ikusten duzu gaur eguneko gazteria?**

Nik ez dut “gazteriarik” ikusten. Gazte batzuk ezagutzen ditut eta beste asko ez. Jende ikaragarri ona dago eta hain onak izango ez diren beste asko, beti egon diren bezala.

**- Euskerarekin harreman gatazkatsua dauka 'Beti'-k. Euskararen erabilera galtzen ari da gazteen artean?**

Durangon behintzat 18 urte nituenean nire inguruan entzuten zena baino askoz euskara gehiago entzuten da gazteen artean. Nahikoa den? Seguru asko ez.

**- Gazteen mundua islatzen da antzezlanean, baina nori doa gehiago zuzendua: gazteei ala helduei?**

Asmoa gazteei zuzentzea zen baina... Nor da gaztea eta nor ez?



**“Beti´ karikatura baino gehiago da: ez dago errealitatetik urrun”**

**- 'Beti'-ren papera egiten duzu 'Buah txabal!'-en. Nolakoa da 'Beti'?**

Karikatura moduko bat egin dugu, baina errealitatetik oso hurrun ez dagoen gazte bat da. Aislamentu puntu batean bizi da, gazteen artean hain modan dauden lokal batean. Bizitza sozial gutxi dauka eta daukanean oso traumatikoa izaten da, izan ere, errealitatearekin topo egiteak nolabaiteko bildurra eragiten dio. 'Beti' izena, bestetik, beti lokalean dagoelako ipintzen diote lagunek. Ohitura fin-

koetako gaztea da, baina bere ikuspegia dauka bizitzaren aurrean eta prima horretatik begiratzen du mundua.

**- Ezagutzen duzu 'Beti' beza-lako pertsonarik inguruan?**

Urteetan aurrera noa, baina ezagutzen dut giro hori, agian ez hain muturrekoa. Beti harreman berdinekin dabilzanak, beti gauza berdinak egiten, neskatan ibiltzeko abileziarik ez daukatenak, lotsatiak direnak... eta lokala euren dako leku oso eroso da. Hor ez dago arazorik, nahi dutena egiten dute bertan.

**- Zein mezu igorri nahi du antzezlanak?**

Bakoitzak bere zentzua hartuko dio antzezlanari. Hala ere, baditu helburu bi. Batetik, euskararen inguruan 14-20 urte bitartekoen artean dagoen jarrera islatzea eta kontzientzia piztea. Eta bestetik, gazteen zailtasunak ikustea besteekiko erlazioetan, batez ere beste sexuekoei dituztenak.



*Bixar itxiko da Debabarrenako Esperientzia Eskolan izena emoteko epia. 50 urtetik gorakuendako pentsauta daguan eskolia honezkero ezaguna da gurian, ez dago eta alperrik 8. ikasturitari ekiteko prest. Esperientziak partekatu eta alkartrukatzeko eta intereseko alor diferentietan formaziñua jasotzeko eta trebatzeko aukeria eskintzen daben eskolia, baiña, ez da bestela oiñ arte ezagutu izan dittugun eskola tradizionalen modokua. Hamen izena emoten daben ikasliak motxilak liburu eta bestelakuekin bete barik, urtiak berez emoten daben bizi-esperientziarekin betetzen dittue. Dana gertu dake kurso barrixari ekiteko.*



## DANA PREST bizi-esperientziaren ESKOLARAKO

**D**atorren astian, martitzenian hasiko dira klasiak Esperientzia Eskolan eta ikasturtiak, erregular, ekaiñera bittartera arteko iraupena eukiko dau. Astia, baiña, beste ikasliena baiño laburragua izango dabe. Izan be, Esperientzia Eskolan astian hiru egunetan baiño ez dittue klasiak emoten: martitzen, eguazten eta eguene-

tan. Eta egun bakotxa be laburra da beste eskoletako egunaren iraupenarekin konparatzen hasiz gero. Goizez emoten dira eskolak, 09.30xetan hasi eta 12.30xetan amaïttuta.

Esperientzia Eskola berbak entzun eta gehixenori jende nagusixarendako eskola berezixaren irudixa etortzen jaku burura,

baiña hori baiño zeozer gehixago gordezten dabe berbok: *“Debabarreneko Esperientzia Eskola alkartrukerako gune irekixa eta gizartian modu positibuan eragittuko heziketa moduluak batzen dittuan proiektua da. Debegesa agentzixak Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Al-*

*dundixaren laguntasunarekin sortutako proiektua, hain zuzen be. Eskolia ikasteko eta gizartian modu aktibuan parte-hartzeko gogua daken baillarako 50 urtetik gorako herritarreri zuzendutakua eta bertan izena emoteko ez da biharrezkua aurretik ikasketarik edo titulaziñorik eukitzia, edozeiñendako zabalik dakaz atiak”, azaltzen dabe proiektuko arduradunak.*

Esperientzia Eskolaren proiektua, gaiñera, helburu zihetz batzuren inguruan jaso eben sortzailliak: *“Hasteko, gizarte-harremanak sustatzia-reakin batera, osasuntsu eta arrakastatsua izateko, garapen personala mailla psikiko, fisiko eta sozalian sustatzea billatzen da. Horrekin batera, etenbarik aldatzen doian erre-alidadea soziala aztertu eta, behiñ hori ulertuta, etenbariko ikaskuntza ahalbidetu nahi da. Eta, horrez gaiñ, eskolan izen-emoten dabenak ordezkatzeten daben adin-talde horren papera aktibua, baliagarria eta onuragarria izateko, gizartian era-*


### ARRATE BERSALUZE, ikasle-ohia “Eskolia aberasgarria topau neban, neretako zeiñ ingurukuendako”

**- Zelan animau ziñan Esperientzia Eskolan izena emoten?**

Erretirua bihar zana baiño lehenago hartuta, libre geratzen jatazen ordu libriak modu batian edo bestian bete bihar niituan, ostera gorputza zein burua trakestuko jatazen. Ordurako Esperientzia Eskolako lehen promoziziñua mar-txan eguan eta han izena emonda eguazten laguneri galdetuta eta prentsan eskolaren gaiñian idatzittakuak irakorritta, holan juan nintzan bere barri jasotzen.

**- Zelan gogoratzen dozu eskolarekin izan-dako lehelengo hartuemon?**

Neretako salbaziñua izan zan. Asteko hiru egunetarako zeregiña emon zestan eta, gaiñera, gustokuak izanda be, aukera faltagaittik ordura arte egin bariko asko egittuko tartia be zabaldu zestan. Hortaz, aberasgarria topau neban eskolia. Eta neretako ez eze, inguruko



jendiarendako be, ni gustura egotian eurak be kutsatzen hasi nintzalako.

**- Zelakuak izaten dira klasiak?**

Emoten dittuen ikasgaixak gai askoren inguru-kuak izaten dira: filosofixia, ekonomixia eta beste asko eta asko lantzen dira, beti be ikasliak daken jakintza-maillara moldatuta. Esko-liak horrelako gaixetan lehelengo pausuak emoteko aukeria eskintzen dau, guk erraz ulertzeko moduan, gaiñera. Hortik aurrera, bakotxak bere gustoko esparruetan nahi beste sakontzen segitzeko bidia zabalik geratzen da. Klasetik kanpora be, ikasturtian zihar urte-erak, hitzaldixak, erakusketak eta beste ha-maika kontu egitten dira. Azkenerako hartue-mon politta sortzen da gure artian.

gitteko ahalmena eragittia be billatzen da, horretarako gizarte ekintzako proiektuak sustatuta”.

### Adituen berbaldixak

Kursua hastekotan daguazanak, azken ikasturtiotako martxiari jarraituta, euren artian oso diferentziak diran edukixak landuko dittue: gizarte-gaitasunen garapena, komunikaziño gaitasunen trebezia, osasun fisiko eta mentalaren hobetzia, erlazaziñorako teknikak, informatika, psikologixia, filosofixia, Debabarreneko kulturua eta ohitturak... Baiña horrek danak ikasteko ez dabe testu liburu edo antzerakorik jarraituko. Izan be, landu biharreko gaixaren arabera, horretan aditua dan bateren bat gonbidatzen dabe klasera, berbaldi edo ponentzia batzuren bittartez gaixaren gaiñeko edukixak ezagutzeraz emoteko. Eta alde positibuen zerren-

da osatzen hastekotan, buruan ipiñi biharrekuaren gaiñeko duda gitxi egon leike: ikasle gehixenendako amesgaiztua diran azterketak ez dira existitzen, ikasliak ez dabe kontrolik, azterketarik edo pareko probarik zertan egiñ eta gairdittu bihar. Behin kursua amaittuta, bolondresguaren alorrari lotutako gizartekontza proiektuak garatzen dittue ikasliak, taldeka. Ikasi daben guztia proiektua lantzeko orduan mesedegarrixa egingo jakue, duda barik, eta talde-lanian isladia eukiko dau. Hortik aurrera ez dake beste ezer iñori demostratzeko premiñarik, ezta obligaziñorik be.

Eskoliak hainbat egoitza euki dittu sor-tu zanetik gaur egunera arte, bestiak beste Unibersidade Laboralak eta Armerixa Eskoliak lagatako lokaletan. Martitzenian hasiko dan ikasturtian, baiña, egoitza barrixa estrenauko dabe: UGT fundaziño

IFES Gizarte Formaziño eta Ikerketarako Institutuak lagatako ikasgelan, Untzaga plazan.

### Eskolia amaittuta be lkasten

Esperientzia Eskoliak sortu eta berehala, lehelengo promoziziñuan bertan emon zittuan fruituak: lehelengo promoziziño ikasliak, ikasturtia amaittu eta ikasten segitzeko proiektua sortu eben: lkasten, Esperientzia Eskolako ikasle-ohien alkartia hain zuzen be. Eskolako ikasliendako jarraipen modukua da lkasten, baiña eskolan ibilli ez diranak be atiak zabalik topauko dittue beti, urte osuan aurrera eruaten dittuen edozeiñ jarduerarekin bat egin nahi izanez gero. Izan be, antolatzen dittuen ekitaldi guztia duan dira eta nahi dabenandako zabalik dagoz. Urte honetako datuak eskuan, gaur egunian 104 bazkide dakaz lkastenek (76 andrazko eta 28 gizonezko). Eta hitzaldi, txango, ikastaro, proiektziño, bideokonferentzi-xa eta abar luziarekin osatutako programaziñua antolatu eta garatzeko, ardura konkretuak dittuen lantaldietan antolatuta dagoz. Lehenagotik be gauza mordua antolatzen zittuen, baiña horrekin konformau barik pauso bat gehixago emon dabe eta 2010/2011 ikasturtetik aurrera Esperientzia Eskolaren gestiñuarekin be arduratzen dira ikasle-ohien alkartekuak. Billa hasitta be, eskoliaren filosofixaren bihotza osatzen daben “aktibidadia” eta “etenbariko ikaskuntza” maximak ezin dabe adibide hobe eta bizixagorik topau.



lkasten Esperientzia Eskolako ikasle-ohien alkartiak 104 bazkide dakaz gaur egunian.

**EGOITZA NAGUSIA**  
Bilbarrizte 20 - behea, eskuma

**FUNERARIA MUGICA**

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

**Tanatorio eta Errozketa labea**  
Egaitan (Signo poligonon)

Partikalar, natua eta aseguru etxei zerbitzuak  
Koroak - Eskelak - Urteumanoa arbelak  
Eskel Hiri osoko ospitaleen bertan zerbitzu  
Nazio eta Nazioarteko Inozatzeak

**Mugica Ehorzketa**  
Errozketa labea

TELEFONUA (24 ORDU)  
**943 201 951**

# ARTOLA

*jatetxea*

## ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Astehenetik barixakura  
EGUNEKO MENUA  
**15 €**

*Paletilla iberikoa  
Etxeko foie-a  
Otarraixkak Martini erara*

*Legatza laban edo  
Bakailaoa Club Ranero eran*

*Solomilloa plantxan edo  
Ahate confit-a*

*Degustazio postrea edo  
Gazta mousse-a edo  
Limoi sorbetea cavarekin*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

Tokia gordetzeko:  
**943206348**

**25 €** + BEZ

TEEN-  
AJEA

**Fraka zuria eta gerrikoa jartzen duen bakoitzean dejada eta boleak egitea da bere helburua. Taularen aurrean, bestetik, enrokeak egin eta erregea mugimendu gabe uzten saiatzen da. Pelotan eta xakean dihardu Iker Narbaizak, pilota astindu eta piezatxoak mugitzen. Gainera, emaitza onak dihardu lortzen kirol bietan.**

**IKER NARBAIZA, xakelari eta pilotaria:**

**“Xala dut gogoko pilotan. Xake-idoloak? Nire irakasleak”**

**- Pilotan eta xakean diharduzu. Nola hasi zinen kirol bakoitzean?**

Aitak pilotan egiten zuen eta txikitatik ibili naiz ni ere pilota astintzen. Horrela, aspaldi sartu zitzaidan pilotarekiko zaletasuna. Xakean, bestetik, orain dela hiru urte hasi nintzen. Eskolan lagunekin jokatzen hasi eta gustatu egin zitzaidan. Nahiko ondo nebilela ikusi nuen, partidak-eta irabaziz eta, horrela agoantatzen dudan bitartean, jarraitu egingo dut.

**- Zer gustatzen zaizu gehien pilotatik?**

Partiduak gogorak izatea eta, nola ez, horren ondorioz irabaztea. Entrenamenduetan lana ondo eginez gero, aurrean neurketa gogorak izanda ere, gustora sentitzen zara. Gainera, gustoko dut pilotan jardutea eta, lagunak ere tartean izanik, pozik ibiltzen naiz.

**- Eta xaketik, zer gustatzen zaizu gehien?**

Batez ere, jokaldi berriak ikastea. Gainera, xakean aritzea ona da gero ikasketetarako ere, beti ere burua lantzen diharduzulako etengabe.

**- Zein da zure eredia pilotari moduan?**


Yves Salaberri “Xala” asko gustatzen zait. Badakit Olaizola II.a ere pilotari ona dela, baina Xala nahiago dut: bere estiloa jarraitu nahiko nuke.

**- Eta xakean?**

Egia esan, hor ez daukat eredurik. Esango nuke nire irakasleak direla nire xake-idoloak (barreak). Hobeagorik ez ditut aurkitu oraindik!

**- Etorkizunean aukera egin behar izanez gero, zerekin geratuko zinateke: pilota edo xakearekin?**

Pilotarekin. Azkarregi da eta ez dakit kirol horretan etorkizun handirik izango dudan edo ez; baina, orain arte eta bat aukeratzekotan, pilota xakea baino gehiago gustatzen zait.



**TAS**

1996-VII-6 / 2011-X-9

*Bizitzan beti gure artzaia izan zara orain hartu zure bidea izarretara*


BETI GUREKIN





**M**ugikortasuna aztertuko dute aurten ikasleek kurtsoan zehar Agenda 21en ekimenez. "Helburua ikasleek egoeraren diagnosia egitea da eta euren ikastetxean, herrian edo eskualdean dauden ingurumen eta gizarte arazoak identifikatzea, beti ere, mugikortasunarekin erlazioa dutenak", diote Debegesatik.

Horrela, kurtsoan zehar ikasleek hainbat jarduera edota ekintza burutuko dituzte



Debegesaren eskutik martxan jarri da, beste kurtso batez, Agenda 21 proiektua. Ikastetxe eta ikastetxeetatik ingurunean ingurumen eta gizarte hobekuntzak lortze aldera hezkuntza komunitatearen konpromisoa eta ekintza plan bat hartzen du bere baitan Agenda 21ak, eta urtero gai baten gainean egiten dute lan. Aurten mugikortasuna izango da protagonista.

## Mugikortasuna: Agenda 21eko protagonista

ikastetxean zein ikastetxetik kanpo: garraio bideen konparaketa, trafikoa- ren azterketa, herritarrei galdeketa, sentsibilizazio kanpainak, eta abar. Bestetik, aurten Debabarrenako 28 ikastetxetako 8.000 ikasle izango dira proiektuan parte-hartuko dutenak.

### 3.000 eskola-agenda

MUGI-MUGI izenburupean 3.000 eskola-agenda banatu ditu herriko ikastetxeetan Eibarko

Udalak. Mugikortasunarekin lotutako gaiak lantzen dira agendan, eta Debabarrenako garraio sarearen mapa eta Gipuzkoako etorkizuneko bidegorri sarea ditu barruan.

Gainera, lehen aldiz lehiaketa bat jarri da martxan agendaren bitartez. "AMESTU ZURE HERRIA: Nolakoa nahi zenuke izatea zure herria/hiria?" lelopean, ikasleek euren herria etorkizunean nola ikusi nahi luketen adierazi beharko dute.

### Ibaiak garbitzen

Tokiko jasangarritasunaren alde egiteko,



Azaroaren 6an eta 13an burutuko dira Deba Ibaia Garbitzeko I. Jardunaldiak.

Agenda 21aren barruan hainbat jarduera antolatzen dira urtero, eta aurten Ibaialagun ekintza egingo da. Deba ibaia garbitzeko boluntarioen programa da hau eta lan-ildo bi ditu: batetik, espezie inbaditzaileen identifikazioa eta, bestetik, **Deba Ibaia Garbitzeko I. Jardunaldiak**, azaroaren 6an eta 13an burutuko direnak. Azken honetan edonork har dezake parte (18 urtez beherakoak pertsona nagusiekin joan beharko dira), eta informazio gehiagorako 943 82 01 10 telefonora deitu edo riodeba@debegesa.com helbidera idatzi daiteke.

## La Salle Azitaingoak Zarautzen surf-ean

Surf ikastaroa egin dute La Salle Azitaingo ikasleak Zarautzen, irailaren 29an eta urriaren 6an burututako saio biko jardunaldian. Ongi pasatzeaz gain, ikastetxean egin ezin dituzten kirolak praktikatzea da horrelako txangoen helburua. Zarauzko ikastaroan oholaren mantenimendua erakutsi zieten eta zein jantzi eta olatu diren egokiak desberdintzen; bestalde, ondarrean hainbat ariketa ere egin zituzten. Guzti hori buruan, uretan sartu ziren eta, eguraldi bikaina lagun, goizeko ordu horietako uraren tenperatura hotzaz baliatuz, mugimenduan jartzeko eta ikasitakoa martxan ipintzeko ez zuten inolako aitzakiarik jarri. Batzuk, gainera, praktika gutxi izan arren, lortu zuten olatu gainean eustea. Nekatuta, baina hitz eta pitz aritzeko gogoz egin zuten Eibarrerako buelta.



## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

**miren albistegi sojo**

**HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK**

Errebal, 14  
t. 943 201 721

T. Anitua 16, behea  
Tel. 943 20 73 57

**AMAÑA**

**HORTZ KLINIKA**

**ARAT** Hortz Klinika

Hortz-osasuneko  
profesional taldea  
zure zerbitzura



Hortz-osasuneko  
profesional taldea  
zure zerbitzura


PREBENTIBIAK: Tel. 943 20 18 51

**m bista eder**

Inbarrak  
gostetu egiten gaitu

implante eta  
Hortz-Estetikan  
adituak

Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-  
943 70 00 82 / 943 20 84 75



Monica Martín Fonseca  
DOKTOREA  
644 kolegiatu zkia.

**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxe: 943 03 33 03

Fermin Calbeton, 6 - 1. A

clinicacalbeton@euskaltel.net

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17

# OSASUN



**GASTESI**

Hortz-Klinika

Jesus M<sup>a</sup> Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia  
Implanteak / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuma 943 70 00 90



**IRAZABAL**  
clinica dental

Julian Etxebarria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, A. Murillo eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Implanteak  
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

**BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE**  
**DENTISTA**

Untzaga 5 - 4. .... 943 70 23 85

**EGUNERO**



**invisalign**  
Ikusten ez den ortodontzia

**Ortodontzia**  
**ume eta**  
**helduentzat**

**M<sup>a</sup> Dolores Olaizola Doktorea**

**EIBARKO ZENTRO MEDIKOA**

Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)  
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706  
www.mariadoloresolaizola.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

**UNTZAGA**  
**hortz-klinika**

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Implanteak

Untzaga, 2 - 1. Eskuma  
Tfnoa. 943 70 25 92

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**



**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia /  
Errekuperaketa funtzionala
- \* Logopedia
- \* Inkontinenzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

*Patronato*  
*Eibarrés*

**Errehabilitazioa**  
eta **Fisioterapia**

**Urkizu 9 - behean**

**EGUNERO** (08.00 - 19.30)

Tfnoak - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58  
Faxe - 943 12 03 58

patronatorehabi@terra.es

## Estetika klinika




**abontza**  
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa



Egungoan, 6. behean - Tel.-Fax. 943 906 044  
www.clinica-abontza.com

**Hemen zure tokia**  
**izan nahi baduzu**  
**deitu 943-206776**  
**telefono zenbakira**



# GIDA

## Fisioterapia



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zbkia.  
ARRAQUETA, 20  
TEL: 943 53 06 42  
ane\_mendia@hotmail.com

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**



**FISIOTERAPIA**  
ENEKO MAILAGARAI OSTEOPATIA  
901 kolegiatu zbkia. NEUROLOGIA  
NEURO-ESTIMULAZIOA  
S. Agustin, 2-4 - M. lokala Tel. 622 14 58 58

## Okulistak



Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solainurtea  
943 20 19 82



**Clínica Oftalmológica RECALDE**  
Oftalmología Clínica

Plaza Barria, 2 - 2º  
Tfnoa: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak



**ELENA AIZPUN**  
**PODOLOGOA**  
124 kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A  
**943 12 14 93**



BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943, 799746

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



**PODOLOGOA**

Mainer Lopez Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea C  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO

*Iñaki Rivero Zabaleta*

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA  
----- (Ume eta helduendako) -----

**Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria 10 - 6. ez. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15  
Artekalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

UME ETA HELDUENDAKO  
PSIKOLOGIA  
KABINETEA



**Arrate Garitaonandia**

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO  
TRATAMENDUAK

Bidebarrieta, 27-B (3. atea) 943 20 22 66  
a\_garitaonandia@hotmail.com

Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa



*Oscar Mondragon Lili*

Urkizu, 13 - behea  
Telf. 943 206823 eta 686 859023


## Radiologia

**MADINA RADIOLOGIA**

- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hertz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak  
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin

Toribio Etxebarria, 4 - 1. ez. 943-202857




## “Locos de desatar” paperetik taula gainera

Juan Sánchez Vallejo psikiatruk idatzitako “Locos de desatar” liburua oinarritzat hartuta, “Loco de desatar” bakarrizketa aurkeztuko du **SARDO IRISARRI** aktoreak azaroaren 10ean Coliseoan. Umorea eta serioagoak diren gaiak tartekatuko dituen ikuskizunean aktore eibartarrak hainbat pertsonaiari bizitza emango die.

## ANTZERKIA


### Antzerki amateurra La Fundación aretoan

**DEUSTUKO LA FUNDICION ARETOAK LAU ANTEZLAN HARTU DITU URRIAREN LEHEN ASTEBURU BITAN. LAU EMANALDIAN ANTZERKI AMATEUR EGITARAUAREN BAITAN DAUDE.** 'Habéis visto mi grito', 'Exiliadas', 'De 16:00... a 18:00h' eta 'Nunca nos regalaron flores'. Urriaren 1ean, zapatua, taularatu zuen Luna Llena Antzerki Taldeak 'Habéis visto mi grito' obra. Garrasia ardatz duen lan horrek sentimenduak lehenetsi nahi ditu gizartearen aurrean. Urriaren 2an, berriz, Hezgaitz Antzerki Konpainiaren 'Exiliadas' antzezlanak ikusteko aukera izan zen. Emakumearen inguruan josiriko antzezlanak da 'Exiliadas'. 8an, Totum Teatrok 'De 16:00... a 18:00h' lana taularatu zuen. Bost emakumek euren iraultza txikirako grina erakutsi zuten eta antzerki talde afizionatu baten sorketa prozesu baten lekuko izan zen ikuslea. Azkenik, urriaren 9an, Burbujas Antzerki Konpainiak 'Nunca nos regalaron flores' obra antzeztu zuen. Irudi itzala agertzen da obra, tren geltoki bat eta bost emakume zain, denak beltzez jantzita eta guztiek gogoratzeko zerbaite dute, denak hotzak jota.



### Dantzan Bilaka Euskadiko hiriburuetan

**EUSKO JAURLARITZAK ANTOLATUTAKO KOREOGRAFO BERRIEN PROGRAMA DA DANTZAN BILAKA ETA EUREN LANAK ESZENATOKI GAINEAN IKUSI AHAL** izango dira hurrengo egunotan



Euskal Autonomi Elkartearen hiriburuetan. Bihar Donostiako Gasteszenan egongo dira, 21ean Gasteizko Artiemen, eta urriaren 26tik azaroaren 2ra Bilbon BAD programazioaren barruan. Dantzan Bilakaren barruan Iker Arruek 'Verfallen', Nagore Somozak 'Sasi eta hodeien artean' eta David Guerrak 'TR3S x TR3S' lanak aurkeztuko dituzte Donostian. Gasteizen, Nagore Somozaren dantzaz gain, Estibaliz Olabarriren 'Play Stands Still' eta Eneko Gil-en 'Tempus' egongo dira ikusgai. Bilbon, azkenik, Carla Fernandezek 'Gu-Nosotros', Eneko Balerdiren 'L'akua', Oihane Martinez de Muniainek 'Nahual' eta Marianela Leonen 'Tela para falda y no oso en la orilla' ikuskizunak egingo dira.

## ZINEA



### Hamabi euskal enpresa Cannes-eko MPCOM azokan

**IKUS-ENTZUNEZKO NAZIOARTEKO AZOKA DA MIPCOM ETA AURTEN BASQUE AUDIOVISUAL EKIMENAREN ESKUTIK 12 EUSKAL ENPRESA EGON DIRA BERTAN.** Canneseko azoka honetan 3 Koma, Baleuko, EiTB, Expressive, Idem, IntectTVT, K 2000, Mediabask, Pausoka, Silverspace, Sonora eta Vilau euskal enpresek hartu zuten parte aurtengo edizioan. Basque Audiovisualen standean hainbat bilera egin dituzte nazioarteko erosle, banatzaile eta ekoizlerekin euskal enpresek. Horrela, Frantzia, Australia, Ingalaterra, Kanada, AEB, Herbehereak, Danimarka, Singapur, Malaysia, Katar, Turkia eta Galesko ordezkariekin egon dira.

### “Troll Hunter” Donostiako Beldurrezko Astean

**DONOSTIAKO FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN XXII. ASTEAK “TROLL HUNTER” LANAREN ESTREINUA JASOKO DU BERE SAIL OFIZIALEAN.** "The Divide" ere ikusgai izango da, Xabier Gens "Hitman" pelikularen zuzendariarena. Beldurrez-

ko Astea urriaren 29tik azaroaren 4ra bitartean izango da Gipuzkoako hiriburuan. Lehiaketan arituko diren beste hainbat lan ere eman dituzte jakitera. Alejandro Brugués argentinarraren "Juan de los muertos"; Xavier Gensen "The Divide"; eta Adam Greenek, Joe Lynchek, Adam Rifkinnek eta Tim Sullivanen "Chillerama", besteak beste.





## Eibar Foball Taldeari aukera berri batek egin zion ihes


**0-1. EMAITZA HORI BURUTIK EZIN JOANDA DABIL HERRIKO FOBALL-ZALEEN ARTEAN**, batez ere talde nagusiaren jarraitzaileen artean. Epe laburrean hiru aukera bikainak ihes egin baitiete Javier Mandiolaren mutilei. Azken denboraldiko igoera-promozioan gertatutakoa etorri zen berriro bakoitzaren oroimenera, eguaztenean Ponferradinaren aurka Kopako kanporaketan 0-1 galdu eta gero. Beste partidu bat golak sartzeko aukerekin, baina ezin; eta, azkenean, amore eman behar. Sabadellekin eta Alcoyanorekin gertatutakoa errepikatu zen eta, orduan moduan, zozketarako zenbakia erosita ere, azkenean sari barik eta burumakur joan ziren aldageletara Eibar FT-ko jokalaririk.



Orain Liga izango da helburu bakarra ikuspuntuan eta, horrekin batera, lau onenen artean sailkatzea bilatzea. Horretarako, domekan partidu garrantzitsua jokatu da Ipuruan, Salamanca handiaren aurka. Talde biak askotan neurtu dituzte indarrak azken urteotan, batez ere 2. A mailan. Partidua arratsaldeko 17.00etan hasiko da.

## Pilota jaialdiak Astelenan gaur (afizionatuak) eta domekan

**KLUBEN ARTEKO TXAPELKETAKO LAU PARTIDU JOKATUKO DIRA GAUR:** hasteko, Deportiboko Egaña-Bengoetxea bikoteak Tolosako bikoteari egingo diete aurre seniorretan; jarraian, kadete mailako neurketa bi izango dira (Arrillaga-Urionabarrenetxea Andoingo ordezkarien aurka eta Santa Maria-Narbaiza Lasarte-Oriakoen aurrean) eta, amaitzeko, Zubizarreta-Agirrebeña senior mailan jardungo dute Donostiako Antiguako ordezkariak aurre eginez.



Domekan, bestalde, profesional mailako jaialdia osatu dute Aspe enpresakoek: lehenengo partiduan, Gonzálezek eta Merinok osatutako bikoteak Martínez de Irujok eta Ceciliok osatutakoari egingo diete aurre eta, jarraian, buruz-buruko neurketa bi izango dira. Partidu nagusian, Xala kantxa osoko txapeldunak Saralegi izango du aurrez-aurre eta, amaitzeko, 2. mailako lehian, Gorkak eta Apezetxeak jardungo dute, nor baino nor.



## Denboraldi hasiera indartsua areto-foballean

**BIGARREN B MAILAN DIHARDUEN ARETO-FOBALLEKO DEBABARRENAKO TALDE NAGUSIAK** ondo hasi du denboraldia eta, bigarren jardunaldian, Kirol Sport taldea garaitu du: 1-2, Unai Labakaren golekina. Concepto Egilek mailaz igotzea helburu badu, Gipuzkoako 1. mailan diharduen Concepto Createch-ek

ez du gutxiago izan nahi eta irabazle izan da denboraldi hasierako partiduetan: 5-2 (Mikelek eta Vilik bina gol) garaitu zuen Horbel Taberna hasierako jardunaldian eta 3-5 nagusitu zitzaion Egintzari bigarrean (hor David Garridok sartu zituen bi gol). Asteburu honetan Usurbilen jokatuko du, Makax-en aurka.

**33.151**  
...eta kitto!-ko  
**GABONETAKO LOTERIA**

**Loteria hartzaileen artean, abenduaren 14an GABON-OTARRA zozketatuko da**

**SALGAI DUZU:**  
Udal Euskaltegia  
AEK Euskaltegia  
Isasi okindegia  
Zabalera okindegia  
Untzaga prentsa  
Urkizu prentsa  
Kultu taberna  
Mujika harategia  
Valenciaga jantxidenda  
Izadi loradenda  
Zubi-Gain kafetegia  
San Andres gozotegia  
Dibutec fotokopiadenda  
Bolintxo okindegia  
Bankoa  
...eta kitto!

**IDOIA BERGARETXE**  
ESTETIKA ZENTROAN

**EGUERDIETAN EZ DUGU IXTEN**

**URRIAN PROMOZIO BEREZIA**

**GORPUTZ TRATAMENDUAK**  
**10 saio = 300 euro**

Estaziño, 1 Tel. 943 20 03 45

**Radio Eibar**  
CADENA SER  
**104,0 FM**

**Izadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Gaizka Hernández entrenamendu saio batean.



## Katu Kalek eta Ruibalek bihar abiatuko dute saskibaloï denboraldia

**IPURUA KIROLDEGIAN, HAUDA, ETXEAN, JOKATUKO DITUZTE EUREN PARTIDUAK** Eibarko talde biek: 16.30etan hartuko du Ruibalek Astigarraigako Mundarro La Salle, Gipuzkoako III. mailako ligako lehen jardunaldian. Handik bi ordura, 18.30etan, izango da Katu Kaleren ordua, Donostiako Cafés Aitona B taldearen bisitarekin. Eibarko talde biek asmo berbera dute aurten: mailaz igotzea. Horretarako, partidu guztiak dira garrantzitsuak eta, zer hobe irabazten hastea baino?

Katu Kalek izako taldea indartzeko jokalaria berri bi ditu: Aitor eta Iker ahaleginduko dira

taldeari behar duen sendotasuna ematen. Ruibalek, bestalde, Anderson Polanco eta Mario Martín izango ditu berritasun nagusi. Neurketa honetan ezingo du parte hartu Miguel Sánchez entrenatzaile berriak eta ezta Magro eta Azurmendi jokalariek.

### Goi mailako teknikaria

Titulu hori eskuratu du hainbat urtetan Baloncesto Eibar taldea entrenatzen izan den Gaizka Hernándezek. Titulu hori Saskibaloï Federazioak eskaintzen duen garrantzitsuen da. Zorionak, beraz, Eibarko teknikariari.

## Gazteak eta Mutrikuarrak galdu gabekoen arteko neurketa



**GAZTEAK-EK MUTRIKUARRAK LIDERRA BISITATUKO DU ASTEBURUAN, 1. ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOKO** jardunaldiko partidu interesgarriean. Lau puntuko aldea ateratzen dio kostaldeko taldeak Gazteak 2. sailkatuari, baina azken honek zail izango du zeozer urratzea ikusita Mutrikuarrak-ek lau partidutan 19 gol sartu dituela eta bakar bat ere ez duela jaso oraindik. Orain arte, Gazteak-ek 8 puntu ditu sailkapenean, Eibartarrak-en bigarren taldeak zazpi eta Urkik bi bakarrik. Unben jokatu diren partiduen artean, Urkik Mondragón hartuko du eta Eibartarrak-ek Soraluze.

Preferentean jokatzen duen Eibartarrak-en lehenengo taldeak, bestalde, oraindik ez daki zer den irabaztea bost jardunaldi jokatu ondoren. Sailkapeneko azken postuan dago, bi punturekin, eta berak baino hiru puntu gehiago dituen Intxurre hartuko du asteburuan Unben.

## Eibar Eskubaloïak 15-46 irabazi zuten Pasaian bere debutean

**EIBARKO ESKUBALOI KLUB BERRIAK ZAZPI GARAIPEN ETA HIRU PORROT IZAN DITU GEHIENENTZAKO EUREN DEBUTEKOA** izan den jardunaldian. Senior mailako taldeak barixakuan hasi zuten denboraldia eta, espero zenez, erraz nagusitu zirtaion Donibane B taldeari Pasaiaiko kiroldegian jokatuako neurketan: 15-46 izan zen azken emaitza. Jubenil mailan, Eibar Eskubaloïko bi ordezkarier arteko lehia izan genuen, Tekniker izena daraman A taldearen garaipenarekin. Kadete mailan, mutilen hiru taldeak irabazten zuten bitartean, neskenak galdu egin zuten berea. Eta, lehiaketatik kanpo, infantil mailan jokatuako lagunarteko partiduetan, mutilen A (hauek 3-51 nagusitu ziren Urolaren aurka) eta C taldea nagusitu baziren ere, B taldeak galdu egin zuten eta bide beretik joan zen nesken taldea.



Zuzendaritza berriak lanean dihardu klub berria sendotzeko bidean, hainbat erakunde eta enpresekin elkarlanean.

## Koskor bakarrik foball-zaletuaren lidergoan, lau puntuko aldearekin

**EZ ZUEN KUPIDARIK ERAKUTSI ETA BAR CASERIO 8-1 EGURTU ZUEN AZKEN JARDUNALDIAN.** Koskorrek gogotsu ekin dio bere lehenengoko denboraldiari eta lau puntuko aldea ateratzen dio bere atzetik sailkapenean osatutako hirukoteari: Tankemans, Azkena Kalton eta EzDok dira zortzi puntu dituztenak eta bat gutxiagorekin daude Durango eta Teknografik, talde indartsuak hauek ere azken denboraldiotan.

Esmorga (7-3 irabazi zion Murillo Nazariori) eta Txoko (8-2 Aretori) izan dira azken jardunaldiko beste bi talde indartsuenak. Garaile izan ziren ere Durango (2-0 Ekodeni) eta Tankemans (5-3 Alkidebari) eta, jardunaldia osatzeko, berdinketa bi eman ziren: bana Azkena Kalton eta EzDok-en artean goiko postuetan eta bina Living Café eta Teknografik-en artean.

Asteburuan honako partiduko jokatu dira: bihar, LivingMurillo Nazario, EzDok-Alkideba, Esmorga-Ekoden eta Durango-Azkena Kalton; etzi, bestalde, Tankemans-Koskor, Caserio-Txoko eta Teknografik-Areto.



Azken denboraldietako talderik indartsuenak, izena aldatuta ere (JoserAutatik Koskorra) indar berarekin jarraitzen duela dihardu erakusten denboraldi honen hasieran.

***Eibarko tiratzaileak Espainiako txapela bi jantzi ditu***

**Iñaki Artetxe: begia non, tiroa han**

**UZTAILEAN MINI-FOSOAN IRABAZITAKOARI ORAIN FOSO UNIBERTSALEAN LORTUTAKOAK GEHITU BEHAR ZAIO.**

Junior mailan parte hartzen duen Iñaki Artetxeri beste urte bi geratzen zaizkio oraindik maila berean, baina irabazi beharreko gutzia irabazi du ia Valladoliden eskuratutako azken txapelarekin: *“200 plateretik, 191 asmatu nituen foso unibertsaleko Espainiako txapelketan. Uztaileko mini-fosoa-rena, bestalde, Irunen jokatu genuen: han 75 plateretik 71 jo nituen”.*

Lau urte dira plater tiroan hasi zela: *“Lehenago ezin nuen, adinarengatik”.* Agustin aitarengandik datorkio zaletasuna: *“Ehizan ere berarekin ibiltzen naiz”.* Azken hau, ehiza, da gehien gustatzen zaiona, baina badaki plater tiroarekin tartekatzen; usakumeen tiraketan behin batean hartu zuen parte, baina ez du hain gogoko. Plater tiraketa denboraldia martxoan hasten da eta sasoi honetan amaitu; hemendik aurrera ehizatzeako aukera izango du. *“Baina azken hau hain laburra da: egun batzuetaz besterik*



**Artetxe tiratzailea, irabazitako bi dominekin.**

*ezin dugu gozatu”,* dio Artetxek. Plater tiraketan munduko txapelketan ere hartu zuen parte: *“Zortzigarren amaitu nuen Frantziako Ychoux herrian jokaturako txapelketan; hai-*

*zeak indartsu jo zuen eta ez nuen nire egunik onena izan”.* Mini-foso modalitatean hiru makina eta hiru plater desberdinekin jokatzen den moduan, unibertsalean bostekin jokatzen dute: *“Fosoa 15 metrotara egoten da eta platerak 120 kilometro orduko abiadura hartzen du. Lehenengo tiroarekin asmatzen baduzu, 27 metrotara izango duzu gutxi gorabehera; bigarrenarekin, ordurako 40ra izango duzu platera”.*

Espainiako selekzioan sartzea du helburutzat une honetan Iñakik. Kirol horretan *“buruari eustea”* dela garrantzitsua dio berak. Eta, haizea badabil, *“platerak norabidez aldatzea da ohikoena: horrelakoak zaindu behar dira”.* Orain kotoa hartu du Errioxan eta azarora arte ehizan jardungo du, aitarekin: *“Usoa da gehien gustatzen zaidana ehizatzea. Baita galeperra eta epe-rra eta, batez ere, birigarroa. Tortola zaila- goa izaten da ehizatzea, azkarragoa baita”.* Hain gazte izanik, etorkizun oparoa pronostikatu dakiok: *“Ez dut lagatzeko asmorik, ez. Hobetzen joatea gustatuko litzaidake”.*

**ane ojanguren**  
proiektuak eta erreformak

bidetbarrieta 13 beheko ezka Eibar 639497457 aneo.janguren@barril.com

Gaur eguerdian inauguratu dute Liburu eta Disken Azoka Untzagan eta hilaren 23ra arte egongo da zabalik. Urtero bezala, euskal liburu eta diskoak aurkitu ahal izango dira bertan, nobedadeak barne, eta horrez gain liburu-sinaketak ere egingo dituzte hainbat idazlek. Liburu eta diskak kalera irtengo dira aurten berriz ere.



**ASIER MUNIATEGI (Euskadiko Liburu Azokak):**

## "Irakurleek nahiago dute paperean irakurtzea"

**- Urteak joan, urteak etorri, liburu eta diska azoka berriz ere egingo da Untzagan. Eibarren izaten duen harrera onaren seinale da?**

Liburu Azoken kanpainaren barruan hainbat azoka egiten ditugu, eta Eibarkoa beti izan da oinarri edo onenatarikoa. Untzagan egin dugun bakoitzean harrera ona izan du. Gaur egunean emoten du egoera okerragoa dela horrelako ekintzetarako, baina aurrera atera dugu Eibarren berriz ere.

**- Zeintzuk izango dira aurtengo nobedadeak?**

Azken unean irtetzen ari diren lanak baino, salmenta gehien dituztenak aipatuko ditut. Kirmen Uribe, Katixa Agirre, Karmele Jaio eta Harkaitz Canoren azken lanak dira, gehien bat, arrakasta gehien dutenak azken azoketan ikusi dugunaren arabera.

**- Liburu eta disken salmentaz gain, hainbat ekintza antolatuzue azokan. Zeintzuk izango dira aurtent?**

Liburuen sinadurak egingo dituzte hainbat idazlek (Jon Arretxe 22an, adibidez), eta Erein eta Elkar argitaletxeek ere euren stand-etan hainbat ekintza antolatuko dituzte.

**- Zein adinetakoak izaten di-**

**ra azokara hurbiltzen direnak gehienbat?**

Herria mugitzen da, orokorrean. Helduak asko mugitzen dira, baina haur eta gazte literatura da gehien mugitzen direnak: pailazoan lanak, Toti Martinez de Lezearen 'Lur'... Horiek dira gehien saltzen direnak. Lan dibulgatiboek ere badute publiko zabala. Eibarraren, bestetik, bertako gaiek arrakasta daukate, Udalak ekoiztutakoak adibidez. Sasoi honetan, bestetik, perretxiko-eta bidai-liburuak asko saltzen dira.

**- Liburu elektronikoen gainean asko egin da berba azken aldian. Igartzen duzue liburu-azoken munduan?**

Ez. Liburu elektronikoen liburu salmenten %1-a mugitzen dute eta uste dut gehien bat 'boom'-a dela. Gehiago da hedabideetan azaltzen dena, errealitatean dagoena baino. Badago, hala ere, beldur bat, musikarekin gertatu zenaren antzekoa dena: pirateria. Momentuz irakurleek nahiago dute paperean irakurtzea. Aparatoak merketzen badira eta jendearen artean liburu elektronikoen erabiltzeko ohitura hedatzen bada, orduan kezkatuko ginateke, batez ere, modu ez-legalen liburuak deskargatzen badituzte.




Bezperako mendi-irteeran perretxikotan ibili ziren ikasleak hainbat sari jaso zituzten. / LEIRE IURBE

## 156 perretxiko ezberdin XIII. Jardunaldi Mikologikoetan

**KLUB DEPORTIBOKO MENDI TALDEKOEK ANTOLATUTA, ZAPATUAN ETA DOMEKAN XIII. Jardunaldi Mikologikoak hartu ditu gureak. Zapatuan goizean goizetik autobus bi irten ziren Ego**



Gainetik, perretxiko bila. Arratsaldean hartutako espezieak sailkatu eta hurrengo egunean ikusgai ipintzeko prestatu zituzten Deporren, Aranzadi zientzia elkartearen laguntzarekin. Domeka goizean, euria zela eta, udaletxeko arkupeetan ipini zuten erakusketa, 156 perretxiko motarekin. Eguerdian, bezperako mendi-irteeran perretxikotan ibili ziren ikasleei saria banatu zieten.



## Beste sari bat Gorka Aizpuruarentzat

**ESPAINIAKO DISEINU GRAFIKOAREN INGURUKO ANUARIA SARIEN AZKEN EDIZIOAN GORKA AIZPURUA SERRANO EIBARTARRAK** saria jaso du, kartel onena saritzeko atalean, "Sopla el globo, sopla la trompeta" izenburuko lanarekin. Estatu mailako lehiaketan saria eraman duen kartela uztailean ospatu zen Donostiako Jazzaldirako irudia aukeratzeko lehiaketan finalista geratu zen.

## Errabal Jazz-eko kontzertua gaur iluntzean

**GAUR, 20.30-ETAN 8. ERRABAL JAZZ JAIALDIAREN BARRUAN KONTZERTUA EMANGO DU RICO MCCLARRIN & MARCOS COLL BLUES BAND-EK** Coliseoan. Eurekin batera Zuhaitz Zati-txuak Sorluzeko blues taldeak jardungo du.

Rico McClarrin Miamitik datorren abeslaria, bateria-jotzailea eta aktorea da. Nazioartean eta funtsean blues, funk, jazz eta soul musika moldeetan izar apartak diren George Clinton, Jaco Pastorius, Puff Daddy, Sly Stone, Buggy Collins eta beste hamaika artistarekin beharrez jardundako musikagile batera-jotzaile aditua da oso, "showman" peto-petoz izateaz gain. Emanaldia antolatzeaz arduratu den Gaztelupeko Hotsak-etik adierazi dutenez, "abeslari gisa, begien bistakoa da ondo menderatzen duela musika beltza deitutakoa, harekin hazi zen, eta agerikoak dira gospel, blues, soul eta funk bezalako musika mol-

deak interpretatzeko dituen dohainak. Izan ere, Howlin' Wolfen estiloko blues lakar eta urratuak bezala, Bill Withersen moldeko soul eta funk baladak interpretatzeko gaitasun aparta du". Bestalde, Marcos Coll Europako aholkularirik onenetakoa da, une honetan Hohner etxe ezagunaren sustapenerako irudi garrantzitsuenetakoa: "Aholkularien munduko txapelketan, World Harmonica Festival-en, Alemanian, epai-mahaikidea izan da. Los Reyes del KO taldeko buru izateaz gainera eta mundu osoan barrena talde honekin jarduteaz gain, musika munduko benetakoa pisu astunekin jardundakoa da, esate baterako, Buddy Miles (Jimmy Hendrix Band of Gypsies, Santana...),



Mick Taylor (Rolling Stones), Tom Jones eta beste batzuekin". Carlos Dalelane bazu-jotzaile mozanbikearrak eta Fred P.G. gitarra jotzaile frantsesak lagunduta jardungo dute, "Under the wings" Marcos Coll musikariaren ibilbidea jasotzen duen disko bikoitza aurkezten. Sarrerak 5 euro balio du.

## Modaren sekretuen inguruko ikastaroa ...eta kitto!-n

**AURTENGO NEGUAN ZEIN ARROPA ETA OSAGARRI ERAMANGO DIREN, ZEIN KOLORE, ZEIN EHUN, EDO EGUN EDO EKITALDI BEREZITAN ZER JANTZI BEHAR DUGUN...**

hori guztia eta gehiago jakin nahi duenak ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik izango du aukera. Izan ere, azaroko lau egunetan (azaroak 3, 10, 17 eta 24an, 18.30etan) "Modaren sekretuak: tendentziak eta aholkuak" izeneko ikastaroa emango du Ana Goitia lekeitiarrak ...eta kitto!-ren egoitzan (Urkizu 11 solairuarekin. 943200918). Izen-ematea datorren astelehenean hasi (urriak 17) eta urriaren 28an (barixakua) amaituko da. Parte hartu nahi duenak 12 euro ordaindu behar-



ko du, 10 euro ...eta kitto!-ko bazkide eta berba-lagunek.

## Ego Ibar zine kluba bueltan

**DATORREN ASTETIK AURRERA, EGO IBAR ZINE KLUBA BUELTAN IZANGO DA HEZKUNTZA ESPARRUAN, ASTEROKO EMANALDIEKIN.** Urriaren 20an ikasturtea zabalduko duen filma "Animal Kingdom" (Australia, 2010) David Michôdek zuzendutako eta James Frecheville, Guy Pearce, Ben Mendelshn, Luke Ford

eta Jacki Weaverrek antzetzutako lana izango da. Betiko martxari eutsita, saio bikoitza eskainiko dute eguenero, 17.30etan lehenengoa eta 21.00etan bigarrena. Sarrerak euro bi balio du. Hilaren 27rako antolatutako emanaldian ikusgai izango den pelikula, berriz, "Neds" (Erresuma Batua-Frantzia-Italia, 2010) izango da.

## laburrak

### DURANGO ETA EIBARKO BANDAK

Domekan 12.30xetatik aurrera Coliseoak hartuko duen kontzertuan Cielito Musika Bandarekin batera Durangoko Tabira Musika Bandakoek jardungo dute. Lehenengoz joko dute banda biek elkarrekin gurean, aurreko domekan Durangon batera jo eta gero, eta ekimenari esker 80 bat musikari batera igoko dira taula gainera. Miguel Arbelaiz Tabirako zuzendariak ezin izango du kontzertua zuzendu eta haren ordez Iñaki Orbegozo Cielito Musika Bandako zuzendariordeak izango du horren ardura.

### ANDRENDAKO PRESTAKUNTZA

Debabarreneko emakumeen ahalduntzea bultzatzeko asmoz, Debegeesak ardura postuetan diharduten emakumeei zuzendutako hiru prestakuntza-saio antolatu ditu eta saioetako bakoitzean gai zehatz bati helduko diote. Saioak Mutrikun (urriak 17, azaroak 7 eta 21), Deban (urriak 18, azaroak 8 eta 22), Elgoibarren (urriak 19, azaroak 9 eta 23) eta Sorluzen (urriak 20, azaroak 17 eta 24) emango dituzte, 18.00etatik 20.00etara. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko ealonso@debegeesa helbidera idatzi daiteke edo 943-820110 telefonora deitu.




## Gabino Diego bihar Coliseoan

**JAI PRODUCTIONS ENPRESAK ANTO-LATUTA, GABINO DIEGO AKTORE EZAGUNA COLISEO ANTZOKIAN IZANGO DA BIHAR** (zapatua), 20.30etan, "Una noche con Gabino, 8 años después" ikuskizunarekin. Sarrerak alde zurretik erosteko aukera dago Eibarren Birjiñape, Portalea, Trinkete, Arno, Terraza eta Caserío tabernetan, Ermuan Xagua tabernan eta Elgoibarren, berriz, Lanbroan. Interneten [www.jai productions.net](http://www.jai productions.net) helbidean ere ipini dituzte salgai 20 eurotan. Bihar Coliseoko lehiatilan ere egongo dira erosteko moduan, 25 eurotan. Ikuskizunean Gabino

Diego aktorea egongo da taula gainean, Gina Piccirilli-ren zuzendaritzapean, "bere ikuskizuna muntatu nahi eta hari-gidaria aurkitzen ez duen aktoreari bizia ematen. Aholkua eskatu eta ez du zalantza argituko dizkion erantzunik jasotzen... ez soilik agertzen ez den hari gidari bedeinkatu horrek eragindako dudak, baita bere haurtzaroko esperientzia eta anekdotek


emandako jakinduriak komunikatzeko beharrezatik ere... bere karreran bildutakoak... musikarenganako duen eta bat ez datorren maitasuna".



## "Bertsolari" dokumentala asteburuan Coliseoan

**KRISTOREN SHOCK-A IZAN DA "BERTSOLARI" IKUSTEA": HORRELA ZIOEN AURREKOAN DOKUMENTAL HORRETAN** parte hartu duen Miren Amuriza bertsolariak. Eta dokumentala ikusteko irrikitan zineten guztiok orain izango duzue pelikula horrekin gozatzeko aukera. Aurretik, Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten eta han izan zen ikusgai irailaren 16tik 24ra arte; Sail Ofizialean izan bazen ere, lehiaketaz kanpo kokatu zuten. Bada, gaur ikusiko du argia Asier Altunaren "Bertsolari" filmak zine aretoetan; eta gurean domekan (20.00etan) eta astelehenean (20.30etan) emango dute Coliseoan. Euskaraz grabatu dute pelikula eta Txintxua Filmen ekoizpena da, Golem-en banaketarekin. Besteak beste, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Miren Narbaiza eta Jon Sarasua bertsolari ezagunek hartzen dute parte bertan, Joseba Zulaika eta John Miles Foleyrekin batera.


## Argazki erakusketa Debako Turismo Bulegoan



**JOSE LUIS MARTINEZ KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEKO KIDEAK HAINBAT LAN** ikusgai ipini ditu Deban, Turismo Bulegoan (Ifar Kalea, 4). Hilaren 19ra arte ikusgai izango den erakusketa bulegoa zabalik dagoen ordutegi berean bisitatzeko aukera izango da, asteleheneetik eguenera 10.00etatik 14.00etara, barixaku eta zapatuetan 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.30etara eta domeka eta jaiegunetan 10.00etatik 14.00etara.


## Pagatxoen erakusketa

**ARRATE KULTUR ELKARTEKO TOPALEKUAK ERAKUSKETA INAUGURATUKO DU GAUR ARRATSALDEAN**, 19.00etan, Pagatxa emakume taldeko andren artelanekin. Erakusketa hilaren 23ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian: astegunetan 19.00etatik 21.00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



## Leitza eta Andoainera Kulturalarekin


**ARRATE KULTUR ELKARTEAK IRTEERA ANTOLATU DU URRIAREN 29-RAKO, LEITZA ETA ANDOAINERA JOATEKO**. Autobusa 09.30etan ir-




tengo da Ego Gaietik eta lehenengo Leitzarako bidea hartuko du, hango Peru Harri museoan bisita egiteko. Ondoren, inguruko jatetxe batean bazkaldu eta arratsaldea Andoainen, Uraren museoan emango dute irteerarako izena ematen dutenek. Bisita biak amaituta, etxera bueltatuko dira. Irteeraren prezioa 30 eurokoa da bazkideentzat eta 33 eurokoa bazkide ez direnentzat (autobusa, bazkaria eta museotarako sarrerak barne). Izena emateko 943202299 telefono zenbakian mezua laga daiteke (izen-abizenak eta harremanetan ipintzeko telefono zenbakia) edo, bestela, posta elektronikoa idatzi arrate.kultu@eibar.org edo arratekultu@gmail.com helbidera.

# laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, XABIER Arrasate Lasa, atzo sei urte egin zenduazelako. Etxeko guztien partetik, mutil haundi!!!



Zorionak, IBANE, gaur bederatzi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta Mirenen partez.




Zorionak, TELMO, zure 1. urtebetetzian. Patxo asko eta besarkada haundi bat amama, aitxitxa eta famelixa guztiaren partez. Ondo pasa!




Domekan zortzi urte beteko ditte gure Tximistak. Zorionak, PERU, etxeko guztien partez eta zortzi milla muxu. Maitte zaittugu.




Iraillaren 21ian jaio zan LUKEN Zulaika Argoitia, gure etxeko txikixa, eta hamen gagoz danok adurra darixola! Ongi-etorri, Luken .



Zorionak, INHAR, gaur urtebete egiten dozulako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, PAUL Urizar Arruti, domekan zure lehelengo urtia beteko dozu-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, URKO Bercianos Eraso, atzo urtebete egin zenduan-eta. Izeba Mireia eta Eibarko aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, EKHI, astelehena bi urte egingo dozuz-eta. Patxo potolo bat aitatxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, ROSA, hillaen 8xan urtiak egin zenduazelako. Famelixa eta ingurukuen partez.



Zorionak, NAIA Guridi Hernández, hillaen 11n urtia bete zalako gure bizitzan sartu eta zoriontsu egin zenigula. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Ongi etorri, ANDER, ama, aitta ta zure etorrerak zoriontsu egin gaituen guztien partez.

## zinea Coliseoan




**"Una mujer en Africa"**  
Zuzendaria: Claire Denis  
Aktoreak: Isabelle Huppert, Nicolas Duvauchelle, Adèle Ado, Michel Subor


**14an: 22.30**  
**15ean: 19.45, 22.30**  
**16an: 17.00, 20.00**  
**17an: 20.30**




Zorionak, IZARO Fernández Azpiri, astelehena hiru urte egin zenduaz-eta. Patxito bat etxekuen partez.



Zorionak, MARINA Ereña Ogiza, hillaen 10ian 11 urte egin dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, HELENE, zure bosgarren urtebetetzian. Muxu haundi bat zure famelixaren partetik.




**"El árbol de la vida"**  
Zuzendaria: Terrence Malick  
Aktoreak: Brad Pitt, Sean Penn, Jessica Chastain, Hunter McCracken

**14an: 22.30**  
**15ean: 19.30, 22.30**  
**16an: 17.00, 20.00**  
**17an: 20.30**



Zorionak, JAIONE eta MARA, hillaen 14an eta 18xan urtiak betetzen dozuez-eta!!! Patxo haundi bana famelixaren partez.




Bata bestiaren atzetik jaio dira TXIKI txakurtxua eta LUKEN gure lehengusu txikixa. Mundiala izan da iraila! Ia bizkor hazten diran, alkarrekin jolasteko.




**"Bertsolari"**  
Zuzendaria: Asier Altuna  
Aktoreak: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Joseba Zulaika, John Miles Foley

**16an: 20.00**  
**17an: 20.30**



**"Animals United"**

**16an: 17.00**



Zorionak, ALAZNE, hillaen 10ian lau urte egin zenduaz-eta. Eibarko famelixaren partez.

## horoskopoa

**ARIES**

Garbiketa egin eta zure bizitzako hainbat gauza ordenean jartzeari ekingo diozu. Ez da lan erreza izango, baina ondoren eskertuko duzu

**TAURUS**

Ez kezkatu gauzak zuk nahi bezala irtetzen ez badira. Porrota onartzen ikasi behar duzu, beti ezin baitzara garaile atera. Ez zara perfektua.

**GEMINI**

Zuk bai dakizula bizitzaz gozaten! Une bakoitzari onena ateratzen dakizu eta ingurukoak ere zure bizi-pozarekin alaitzen dituzu.

**CANCER**

Inoiz baino aktiboago ibiliko zara hurrengo egunotan. Edozer gauza egiteko gai izango zara eta edozein proiektuari gogo handiz ekingo diozu.

**LEO**

Maite duzun lagun horri huts egin diozula sentituko duzu, baina ez zara ausartuko berehala barkamena eskatzen. Zergatik zara hain harroa?

**VIRGO**

Aro berria hasiko duzu. Iraganeko ohitura txarrak albo batera laga eta sasoi berria bizitzeari ekingo diozu, gauzak beste era batera ikusiz.

**LIBRA**

Une politak biziko dituzu hurrengo egunotan familia artean. Aspaldi ez zinetela denak elkartzen: iraganeko une ederrak gogoratuko dituzue.

**SCORPIUS**

Ez laga denbora pasatzen eta aurre egiozu egoerari berehala. Hobe holan eginda: bestela, arazoa potoloagoa egingo da eta eabzten zailagoa.

**SAGITTARIUS**

Udazken honetan zure itxura aldatzen joango zara poliki-poliki. Estilo polita daukazu eta, beti moda-modan, egoteko gai zara. Aukeraz baliatu!

**CAPRICORNIUS**

Mendira bazoaz, argi ibili, barneko GPSa oker baitaukazu. Hobe laguneren batekin joaten bazara, badaezpada ere. Jendea zure bila hasi aurretik!

**AQUARIUS**

Zu bai zu! Demaseko gaitasuna daukazu argazkietan gaizki agertzeko. Zergatik egiten duzu beti tontoarena? Beno, gutxienez barregarria zara.

**PISCIS**


Jatorra zarela pentsatzen du mundu guztiak, baina ez dakite nola jartzen zaren hasaretzen zaren. Hobe zuzatit kilometro askotara egotea.

**Barixakua 14****KONTZERTUA**

**20.30.-** Errabal Jazz: Rico McClarrin & Marcos Coll Blues Band + Zuhaitz Zatitxuak blues taldea (Soraluze). Sarrera: 5 euro. Coliseoan.

**Zapatua 15****ANTZERKIA**

**20.30.-** "Una noche con Gabino, 8 años después", Gabino Diegorekin. Antolatzailea: Jai Productions. Sarrera: 25 euro. Coliseoan.

**Domeka 16****ODOL EMAILEAK**

**12.00.-** Meza, Elgetako parrokian.  
**13.00.-** 25, 40 eta 50 aldiz odol eman duten odol emaileei eta odol emaile bikainei intsigniak eta diplomak banatzea.  
**14.00.-** Bazkaria. Elgetako Espaloia antzokian (Elgetan).

**KONTZERTUA**

**12.30.-** Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

**Martitzena 18****IKASTEN**

**10.00.-** Pelikula baten emanaldia. Hezkuntza Esparruan (Unian).

**ZERO POBREZIA**

**19.00.-** Zero Pobrezia 2011 sentsibilizazio-kampaina. Eibarko proiektuen inguruko aurkezpena eta Alfonso Dubois-en hitzaldia. Portalean.

**Eguaztena 19****IKASTEN**

**09.13.-** Mendi ibilaldia: Algorta-Sopelana GR-123 ibilbidea egiteko Boluetarako tranaren irteera (Estaziñoan).  
**09.15**etan Ardantzan.

**ILLUNABARRIAN**

**19.00.-** "Buh txabal!" bakarrizketa saioa. Sarrera doan. Portalean.

**Eguena 20****IKASTEN**

**10.00.-** "La importancia económica y social para la mujer guipuzcoana en los siglos XV y XVI del lino", José Antonio Azpiatzuren eskutik. Hezkuntza Esparruan (Unian).

**EGOIBAR ZINEKLUBA**

**17.30 eta 21.00.-** "Animal Kingdom" (Zuz: David Michôd). Sarrera: Euro 2. Hezkuntza Esparruan.

**ikastaroak****- Sektore turistikoarentzako ikastaroak.**

Noiz eta non: Urriak 17, azaroak 21 eta abenduak 12, 09.00etatik 13.00era Debegegan. Informazioa eta izen-ematea: 943820110 (Beatriz) edo beaescobar@debegega.com helbidean.

**- "Modaren sekretuak: tendenziak eta aholkuak".**

Noiz eta non: Azaroak 3, 10, 17 eta 24an, 18.30etan, ...eta kitto!-n.

Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 17tik 28ra, ...eta kito! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea, 943200918 telefonoan). 10 euro bazkide eta berbalagunentzat, 12 euro besteentzat.

**lehiaketak****- "Sanandresak 2011 Eibarren" Kartel Lehiaketa.**

Lanak aurkeztea eta informazioa: Urriaren 20ra arte, Pegoran.

**- San Andres Bertso-Paper Lehiaketa.**

Lanak aurkeztea eta informazioa: Azaroaren 7ra arte, ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuartea).


**HILDAKOAK**

- Javier Lizarralde Odriozola. 74 urte. 2011-X-7.
- Elena Izagirre Arizaga. 90 urte. 2011-X-8.
- Felipe Magunazelaia Amenabar. 87 urte. 2011-X-8.
- Benita Portillo Ayllón. 94 urte. 2011-X-9.
- Felisa Egiazu Araolaza. 86 urte. 2011-X-9.
- Antonio Aranberri Goitia. 91 urte. 2011-X-11.

**JAOTAKOAK**

- Jihan El Moussaoui. 2011-IX-22.
- Adrian Ramos Pino. 2011-IX-29.
- Aner López Egaña. 2011-X-4.
- Lucia Gabilondo Sologaitua. 2011-X-5.
- Aitana Recio Ortega. 2011-X-6.
- Paola Hernández Gómez. 2011-X-8.





## erakusketak

- Urriaren 16ra arte  
**"MUGARTEA"** Ermuko Pintura Taldekoen erakusketa. *Portalean.*
- Urriaren 19ra arte  
**JOSE LUIS MARTINEZ** en argazki erakusketa. *Debako Turismo Bulegoan.*
- Urriaren 23ra arte  
**PAGATXA** emakume taldekoen erakusketa. *Topalekuan.*
- **RUBEN** en "Meduelelvida" erakusketa berezia. *Karrika tabernan.*
- Urriaren 30era arte  
**EUSKAL AKUARELARIEN ELKARTEA** en erakusketa kolektiboa. *Portalean.*
- Urriaren 31ra arte  
**J.R. SAN JOSE** en argazki erakusketa. *Depor tabernan.*
- **EINER RODRIGUEZ PONCE** en "Arquitectura Medieval" argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- **BAKARNE ELEJALDE** en argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- Azaroaren 23ra arte  
**"MEDUELELAVIDA"** **RUBEN** en erakusketa berezia. *Karrika tabernan.*

## diru-laguntzak

- **Umeak Eskolara 2011 eta Dirulaguntzak Ikasleei 2011.**  
 Eskerak aurkezteko epea: Abenduaren 1era arte, Pegoran.

## farmaziak

- 14, barixakua**  
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)  
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 15, zapatua**  
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)  
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- 16, domeka**  
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)  
 GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- 17, astelehena**  
 EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)  
 GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- 18, martitzena**  
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)  
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 19, eguaztena**  
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)  
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 20, eguena**  
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)  
 GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- 21, barixakua**  
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)  
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak .....112
- Pegora .....010
- Udaletxea .....943 70 84 00
- Portalea .....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB .....943 20 38 43
- Epaitegia .....943 03 34 00
- Iberdrola .....901 20 20 20
- Naturgas .....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza .....943 53 17 00
- Eusko Tren .....902 54 32 10
- Pesa .....902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

## autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

## tren ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

SUDOKUA

6			8				2
			5		7	8	9
		3	6				5
	4					5	8
				2			
7		8					9
	9				4	1	
3		2	7		9		
5					3		6

## DENBORAPASAK

8	3	5	6	7	2	1	9	4
1	9	2	4	5	3	7	6	8
6	7	4	8	9	1	2	3	5
4	1	6	3	2	9	8	5	7
5	2	7	1	8	6	3	4	9
9	8	3	5	4	7	6	2	1
2	4	8	7	3	5	9	1	6
3	5	1	9	6	8	4	7	2
7	6	9	2	1	4	5	8	3

AURREKOAREN EMATZA

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Soraluzen. 3 logela. 70 m<sup>2</sup> + ganbara + garajea (itxita, pegora aldamenean, 15 m<sup>2</sup>). 189.000 euro. Altzariekin eta egogera olean. Sartzeko moduan. Eguzkitsua eta balkoiarekin. Erditik 5 minutura. Tel. 696-658413 eta 626-666919.

### 1.2. Errentan

– Etxebizitza alokagai Ermuan. 2 logela. Ilogailua. Prezio olean. Tel. 661-653160.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 649-313548 eta 943-201933.

– Amañan pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldaria eta komuna. Eguzkitsua. Tel. 646-484230.

– Logela biko pisua behar da alokairuan Bista Eder inguruan. Tel. 688-618959.

– Logela biko pisua behar da alokairuan Urkizu inguruan. Tel. 638-047847.

– Familia batek pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 669-966611.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Opel Astra salgai. 93 urtekoa eta egoera olean. Tel. 695-743398.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Urkizu inguruan garajea alokagai. Marraduna. Tel. 639-632172 eta 943-127104.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Geriatria-laguntzailea den neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-932443.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 664-111706.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

### 1.2. Errentan

### 1.3. Konpartitzeko

### 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

### 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

### 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako. Tel. 617-571210.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-431590.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 648-196773.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 681-322442.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako orduka. Esperientzia. Tel. 690-925929.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako edo etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko, gauz zein orduka. Tel. 618-052967.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923 eta 943-176528.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 609-148861 eta 943-257815.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldarian laguntzeko. Tel. 608-376387.

– Kamarera eskaintzen da. Esperientzia. Tel. 692-332871. – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 689-243694.

– 40 urteko emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 633-150376.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 682-277198.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 635-555040.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita gauz ere. Tel. 682-934865.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita gauz ere. Tel. 682-553224.

– Mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanetarako: nagusiak zaindu, garbiketarako lanak egin, baserrian jardun... Tel. 630-031218.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

### 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.1. Eskaerak

### 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

### 6.2. Eman

### 6.3. Galdu/Aurkitu

### 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta besteen oporretan euren ordez jarduteko. Tel. 657-396018.

– Mutila eskaintzen da pintore lanak egiteko. Tel. 610-017571.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 673-436363.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 619-445548.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 636-517025.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 669-994669.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 691-743549.

– Emakumea eskaintzen da etxeak edo pegorak garbitzeko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 677-689227. Aitziber.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 651-836353.

– Administrazio lanak egingo nituzke arratsaldean. Deitu 15.00etatik 19.00etara. Tel. 943-702089.

### 4.2. Langile bila

– Ileapaindegi batean 1. ofizial mailakoa behar dute, esperientziarekin. Tel. 943-254512 eta 637-528992.

– Kamarera/o behar da Eibarko erdi aldean. Kontratuarekin. Tel. 653-019962.

– Laguntzailea behar da Ermuko hortz-klinika batean. Astean 11 ordu. Deitu 18.00etatik 20.00etara. Tel. 615-724810.

– Neska euskalduna behar da ume bi zaintzeko. Autoa izatea beharrezkoa. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 605-714109.

– Emakumea behar da etxeko lanetarako. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 649-388582.

– Kamarera behar da jatetxe batean. Tel. 943-121262.

– Asteburuetarako kamarera/o(ak) behar dira. Euskaraz egitea ezinbestekoa. Tel. 679-950907.

– Tabernarako sukaldaria behar da. Tel. 605-771995.

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

– Ingeles irakaslea behar da. Bertakoa edo maila altua duena. Tel. 943-176632.

### 5.2. Eskaintzak

– Magisteritza ikasten diharduen neska eskaintzen da arratsaldean klase partikularak emateko. Tel. 677-633754.

– Ingeniari kimikoak klase partikularak emango lituzke. LH, DBH eta Batxilergoa. Tel. 628-665220.

– Euskarazko klaseak ematen ditut, azterketak prestatzeko: EGA, hizkuntza eskakizunak... Tel. 620-608065.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Arropa-lehorgailua salgai. Zanus markakoa. Tel. 626-144098.

– Umearentzako kotxe-kapota salgai. Silver-Cross urdina. Egoera olean. Tel. 620-642654.



**ALFA**<sup>®</sup>

